

Zer? Ez zinen gogoratzen
ikastetxeko gastuak zetozela?



GESTIPLANek **ohartaraziko** ditzu

Azkenean, hona hemen era erosoa eta erraza familiako ekonomia kudeatzeko: **GESTIPLAN**.

Zerbitzu berri honek **familiako gastu guztiak planifikatzen eta kontrolatzen lagunduko** ditzu. Zehazki esango ditzu zenbat eta zertan gastatzen duzun, **eta hileko kuota bakarra** kalkulatuko ditzu urteko gastu guztiei aurre egiteko, nahiz eta hil batean handiak izan eta hurrengoan txikiagoak.

Honela, zeure etxeko ekonomian oreka handiagoa lortzeaz gain, aukera berriak aurkituko dituzu zeure diruarentzat.

zer nahi duzu bihar?

Proba ezazu Kutxanet-en!

www.kutxa.net

 **kutxa**

KULTURA > HELDUENDAKO EUSKAL DANTZA IKASTAROAK

Herriko plazara dantzan ez irteteko aitzikiarik ez dago

IKASTAROAK Debagoineneko herrieta euskal dantzen gaineko oinarrizko ikastaroak daude helduendako

ARETXABAleta Lau saioko ikastaroa abian jarriko du urriaren 13an Aretxabaletako Loramendi euskara taldeak

BERGARA Joan zen urteko Jarduneko ikastaroan 80 lagunetik gora parte hartu zuten hiru hilabetez

EGUN BEREZIAK Inauteriak edo herriko jaiak gertu, hainbat herrieta ikastaroak antolatzen dituzte



Arrasateko San Juan jaietan, Errementari dantza dantzatzen. Hori eta bestelako euskal dantzak ikas ditzakete helduek ikasturtean zehar.

GOIENKARIA

MIRIAN BITERI > BERGARA

Arin-arina edo fandangoa dantzatzen ez dakitenek edo plazara irteten ausartzen ez diren helduek ez dute aitzakiarik hemen-dik aurrera. Debagoineneko hainbat herrieta euskal dantzen ikastaroak antolatu dituzte. Batzuetan hainbat hilabetekoak dira eta beste batzuetan, berriz, jaieguna bereziak gertu daudenean dantza ezagunenak eta errazenak ikasteko eskola solteak egiten dira.

Aretxabaletan Loramendi Euskara Elkarteak gertatu du dagoeneko helduendako ikastaroa, herriarrek hala eskatuta. Datorren astelehenean, hilak 13, ekingo diete eskolei. Loramendi dantza taldeak emango ditu dohainik astelehenero, 18:30etik 20:00etara, udaletxe zaharrean. Betiko dantzak ikasiko badituzte ere, parte hartzaileek eskatzen dutena ere kontuan hartuko dute.

Loramendiko arabera, "jendea animatzen da ikastaroa txikiadenean; lau egun bakarrik hartzen dizkie-eta". Emakumeak nagusitzen dira horrelakoetan. Aurten, baina, mutil bat dago taldean..

80 LAGUNETIK GORA BERGARAN

Bergaran ere Jardun Euskara Elkartea antolatzen ditu. Hango Nerea Mendizabalek esan du horiek oso harrera ona dutela helduen artean. Joan den urteko eskoletan, esaterako, 80 lagunetik gora egon ziren. Ez dira ikasturte osokoak; urtarrilean hasi eta hiru bat hilabetez luzatzen dira. Bi eskola mota daude: dantza soltekoak eta taldekakoak.

Guztira, hiru talde daude Bergaran: Abarka, Moises Azpiazu eta Xamatz. Azken horrek jaiegun bereziatarako eskola solteak antolatzen ditu. Hango Ibon Unanumok dio San Martzial egunean eta uztailoko erromerietan dantza egin ahal izateko prestazten dituztela.

Oñatin antzera gertatzen da. Oñatz taldeko Jesus Irizarrek jakinarazi du San Migel jaien ostean, proposamena egiten dutela urtero. Normalean, inauteriei begira prestatzen dituzte saioak. Gainetaratu du, baina, prest daudela ikastaro luzeagoak antolatzeko, herriarrek hala eskatzen badute. Elgetan ere horrela jarduten dute.

Ikastaro bakar batzuk egoten dira urtean, jaietako egitarauaren arabera antolatzen direnak.

Antzuolan, azken urteotan, larrain dantza ikasteko eskola eman ditu Oinarin taldeak. Gaintzeko herrieta moduan, jaie-

tarako prestatzen dituzte herriarrok. Taldeko Aitziber Goñiren esanetan, gero eta mutil gehiago animatzen da, gehienak 30 eta 50 urte bitarteko emakumeak badi-ra ere. Azaldu du udaberrian hasten direla eskolekin: "Jendeari ez

zaio interesatzen urte osoko ikastaroa izatea. Dantza konkretua erakusten diegu. Urteetan ikusi gaituzte dantza egiten jaietan eta ikasi nahi dutela jakinarazi digute. Hoge i lagun inguru dato".

Eskoriatzan Musika Eskolak du horren ardura. Taldea marti-znetan eta eguznetan biltzen da, 16:30etik 17:30era. Musika Eskolatik aipatu dute taldea urte osoan mantentzea zaila dela. Horregatik, animatzeko deia egin dute. Aramaion, bestalde, Lagun Artean taldeko arduraduna alda-tutu egin da eta aurten zer egin aztertzen dihardute orain.

Arrasaten ere eskolak daude. Hiru dantza talde daude han: Arrostaitz eta Txiki, batetik; eta Lorea Gazteak, bestetik. Gogorarazi behar da, horren harira, Maritxu Kajoi Komisiñoko kideek euskal dantzen hiru irakasle omendu dituztela aurtengo Nobe-naixaon, urteetan egindako lana-gatik. Marga Mercader Txikitxuren sortzaileetako da, gero Arrostaitz ere izango dena. Ixiar eta Xeli Arregik ahizpek Lore Gazteak sortu zuten.

Aramaioko Lagun Artean dantza taldeak hiru urtetik gorako umeei erakusten dizkiete euskal dantzak, ohi baino lehenago

Aramaioko umeek txiki-txikiak direnetik dute euskal dantzetan aritzeko aukera. Lagun Artean taldeak hiru urteko haurrak hartzen ditu: "Aurten adin horretako ume asko apuntatu da. Eskolan hamabi urtera arte daude eta adin tarte horretako taldeak ditugu. Institutura joaten direnekin ere sainaten gara urtero taldea egiten". Bailarako gainontzeko herri gehienean ere ikasturte osoko ikastaroak eskauntzen dituzte bost edo sei urtetik gora umeendako; irailetek ekainera bitartean. Oñatin urriaren erdialdean ekingo diete eskolei. Datozen egunotan, gutunak bidaliko dituzte ikaste-txetetara, gura duten sei eta zappi urteko bitarteko umeek izena eman dezaten. Normalean, 150 haur inguru ibiltzen dira horretan. Eskoriatzan, aurten, sei talde dituzte. Musika Eskolan ematen dituzte eskolak. Antzuolan, berriz, bost talde osatu dituzte; bakoitzan hamar neska-mutiko baino gehiagorekin. Oinarin taldeko Aitziber Goñik, baina, esan du gero eta zailagoa dela jendea erakartzea: "Gaur egun umeek gauza asko dituzte eta dena ezin da. Jaitsiera igarri da. Antzuolan, baina, ezin gara kexatu".

Jose Maria Horcajada > Gudaria

"Asko sufritu duenak lehertzeko beharra izaten du"

ARRITXU BARRUSO > ARETXABAleta
 Jose Maria Horcajada *Josetxiki* ize-naz ezagutzen dute Aretxabaletan. Cuencan jaio zen, baina, lau urterekin Aretxabaletara etorri zen bizi-zera. Berehalako integratua zen eta euskarazere ikasizuen. *Josetxikirenbizitzagorria* izanda; Espainiako Gerran frankistek preso hartu zuten eta Aretxabaletako Zaraoa espetxearen 7 hilabete pasa zituen, besteak beste. Bere bizi-penak kontatuz *La Mancha nos dio un gudari* liburua idatzi du. Zapatuan egin zuen lanaren aurkezpena Aretxabaletako Arkupe kultura-etxearen.

Nola sortu zen liburu hau idatzeko proiektua?

Urte askotan nire barrenean baneukan horrelako bero edo su bat. Badirudi asko sufritzen due-nak lehertzeko gogoa izaten due-la. Niri 86 urterekin iritsi zait lehertzeko momentua. Gauza asko neuzkan kontatzeko, edo hobeto esanda, ezbehar asko.

Zer da *La Mancha nos dio un gudari* liburuan aurkituko duguna?


Niretako oso garrantzitsua da honako mezua: etorkinei gizartezko ahalegina egiteko eskatzen diet. Eurak jasotzen dituzten herrialdeetako legeak eta ohiturak errespetatu behar dituzte. Eta Euskal Herriaren kasuan euskaraz ikasten badute hobeto.

Zeuk ere hala egin zenuen, ezta?

Noski baietz. Oso gaztea nin-tzen, eta ez nuen beste aukerarik izan. (Barre)

Aretxabaletan momentu onak bai, baina, gogorrak ere bizi zenituen...

Horrelaxe da. Zorte txarra izan genuen. Gure kontra egin zuten eta guk ez genuen ezer egin. Gaur egun frogatu dezaketen egotzi zizkidaten guztiak gezurrak zirela. Bidegabekeria asko gertatu ziren urte haietan.



Jose Maria Horcajada.

ARRITXU BARRUSO

Zer iruditzen zaizu Memoria Historikoaren Legea?

Gaizki planteatuta dago. Terroismoaren biktima-tz asko hitz egiten da. Bainaz zeintzuk dira biktima-tz? Horixe da nire galdera. Ni

bederatzi urtez Francoren erruz espoxe, kontzentrazio eremu eta abarretan sartuta izan ninduten. Zeintzuk dira biktima-tz? Biktima-tz mak geu gara, eta ezer gutxi egin dute gobernuak gure alde.

EAE eta EHAK-ren legez kanporatzea salatu zuten zapatuan Bergaran

Herritar talde batek EAERen legez kanporatzearen aurkako manifestazioa egin zuen zapatuan eguerdian Bergaran. *Salbuespen egoerari stop* zioen pankartaren atzean, 150 bat herritar batu ziren, Agurne Barruso alkatea tartean. Bukaeran testu bat irakurri zuten manifestariekin: "Bergaran boto gehien jaso zituen alderdia lan instituzional eta politikorako eskubide gabe utzi dute". Euskal preso politikoak eta iheslariak ere izan zituzten gogoan eta Euskal Herri aske baten alde borrokan jarraitzeko deia egin zuten.



E.M.

ELIKADURA

Gomiztegiko bi gazta sarituak Dublinen

'Word Cheese Awards' lehiaketara aurkezten diren bigarren aldia da

ARRITXU BARRUSO > BERGARA
 Gomiztegi Kooperatibako gazzak nazioarteko saria lortu du. *Word Cheese Award* lehiaketak munduko gazta onenak saritzen ditu. Dublinen egin da aurten lehiaketa eta Gomiztegik bi gazta bida-li zituen. Biek ere domina lortu zuten: urrezko bat eta brontzezko bestea. Mundu mailako lehiaketa horretan parte hartzen duten bigarren aldia da. Aurreko urtean izan zen lehen aldia eta orduan ere emaitza oso onak lortu zituzten: 2007an zilarrezko domina-ka ekarri zuten etxera.

Dublinen egin den aurten-go edizioan Idiazabal jatorrizko izendapenak 19 domina lortu ditu guztira: sei urrezkoak, beste sei zilarrezkoak eta gainontzeakoak brontzezkoak. Horietatik urrezko bat eta brontzezko bat Gomiztegira etorri dira. Sei ureetatik, gainera, lau Gipuzkoako gazzarenak dira: Elgoibar, Zerain, Ordizia eta Arantzazu-koak, hain justu.

Gomiztegiko Nikolas Segurola pozik dago sariarekin: "Guretako sekulako poza eta sorpresa izan da aurten-go saria. Pasa den urtean ere oso emaitza ona lortu genuen, baina, aurtengo ikaragarria izan da". Segurolak adierazi du Dublineko epaimahaia ere harrituta gelditu zela Idiazabalgo gazzaren kalitatearekin: "Esan ziguten nola zitekeen horrelako gazta ona hain isilik egotea. Zapore eta kalitate oso ona duela esan zuten".

Datozen asteotan Valladoliden eta Pirinioetan egin-ko diren lehiaketetara begira dago dagoneko Nikolas Segurola. Emaitza onak espero dituzte horietan ere.

GIZARTEA > ANDRES BELLO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA DA

Luis Ugalde jesuita bergararra, Zientzia Politikoen Akademiako kide Venezuelan


Utopia politikoen gaineko sarrera hitzaldia
egin zuen jesuita bergararrak, Caracasen

EDU MENDIBIL > BERGARA

Luis Ugalde jesuita bergararra Venezuelan Zientzia Politikoen eta Giza Zientzen Akademiako kide izendatu dute. *Utopía política: entre la esperanza y la oposición* izenburuko hitzaldia egin zuen Ugaldek sarrera-hitzaldian, joan den uzailean. Alfredo Morales Hernandez akademikoak erantzun zion Ugalderi.

BIZITZA GEHIENA VENEZUELAN

Ibilbide luzea darama Ugaldek Venezuelan: 1938. urtean Berga-



Luis Ugalde. ARTXIBOA

rako Moyua baserrian jaioa, 1957. urtean joan zen Venezuelan. Andres Bello Unibertsitateko errektorea da 1990. urtetik. Filosofia eta Letretan, Teologian eta Soziologian lizentziatua da eta horrez gain, Venezuelan historia ekonomikoan zein giza historian aditua da Ugalde. Alfredo Morlesek azpimarratu zuenez, "Zientzia Politikoen eta Giza Zientzen Akademia honetara zientzia juridikoetan profesionala ez den beste lagun bat datorkigu. Ez da horrelako salbuespen

hainbat utopia sozialaren atzean egon da. Bere ordenaren tradizioaz harro dago Ugalde eta horrek ez dio oztopatzten gaurko jesuita bat izaten, ausarta ekintza ebanjelizatzailean eta aurrerapena eta justizia uztartzen dituen horietakoa. Hori dela eta, azken 10 urteotan Venezuelan gizalege jardunaldieta parte aktiboa izan da eta bizitza akademikoan, pastoral soziallean eta hausnarketa politikoan ezinbesteko referentea bilakatu da. Meza ematen duen apaiza da Ugalde. Horrez gain, jendeak komentatzen dituen gauzak esaten ditu, baita jendeak irakurtzen dituen entseguak idatzi ere".

> ISTRIPUA
Arrasatear bat larri zaurituta motor istripu baten ondorioz

Ertzaintzaren prentsa bulegotik emandako informazioaren arabera, istripua zapatuan gertatu zen, arratsaldeko zazpiak baino minuti batzuk lehenago. GI-627 errepeidean izan zen ezbeharra, Arrasate parean. Istripuan ondorioz, motozikleta bat bidetik atera zen eta, ondorioz, gidaria bide bazterrera erori zen.

Motorraren gidaria, Z.B.A., Arrasateko 38 urteko bizilaguna, larri zaurituta gertatu zen eta Debagoieneko Ospitalera eraman behar izan zuten.

> DANBAKA
Revelphone taldeak lortu du ikusleen babes handiena

Aurten ere Danbaka lehiaketako jarraitzaileak fin ibili dira azken momentura arte gustuko zuten taldearen aldeko botoak ematen. 23 talde epaimahaiak aukeratu zituen eta 24. taldea jarraitzaileen esku zegoen; Revelphone talde soraluzearrak lortu ditu boto gehien (%32,24); bigarren postuan geratu da Battle Cockies eta hirugarrenean Musikaria.

Revelphone taldea Iosu Arriola, Gaizka Azkarate, Joanes Iñurrieta, Asier Iraeta eta Juan Fernandezek osatzen dute eta punk-rocka egiten dute. Abenduaren 19an joko dute Elgetako Espaloian.



E. AZKARATE

Debagoinetik kanpo ere izango du oihartzuna Danbaka musika lehiaketak

Goienak hitzarmena sinatu zuen egubakoitzean ...*Eta Kittó!, Barren eta Anboto* aldizkariarekin. Hitzarmen horri esker Elgoibar, Eibar eta Durangaldeko aldizkariak Danbaka lehiaketaren gaineko jarraipen zuzena egingo dute. Goienak hiru aldizkari horiekin sinatzen duen lehenengo hitzarmena da hau, baina, iragarri dute lehenengo pausua besterik ez dela hori, eta etorkizunean ere elkarlanean jarraitza gurako luketela.

AZKARATE
AROZTEGIA


K21
KALITATEAK
Ingenierosak 21. 20000

AROTZ LANETAN BEHAR DUZUN GUZTIA

Ateak
Leihoa
Horma-armairuak
Tarimak
Parket flotatzaileak
Sukaldeak

Telleria 19 B-0-2 B-0-3 // Bergara
Tel.: 943 76 47 19 // 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate



Horma-armairuak



ELIKADURA IKASTROA

(Energia-naturala) ARRASATEN eta GASTEIZEN

URRIAN HASTEKO

TALDE MUGATUAk

Jesus Romeroren eskutik

(Nutrizionista eta sukalde naturalean aditua)

Tel.: 943 77 16 70 / 695 78 00 58

Zure osasunerako janaria presta ezazu!!

ZUAITZO

ECONAT



Urriaren 14tik abenduaren 2ra bitartean, Bergarako Musika Eskolan, lehen aldiz, musikote-

rapiaren gaineko ikastaroa eskainiko da. Joan den ikasturtean hasi ziren bertako ikasle

direnei musikoterapia saioak eskaintzen, eta orain, ikastaro irekia antolatu dute. Musika

klasikoa izango da ikastaroko musika oinarria. Gehienez ere, 15 laguneko taldea osatuko da.

Aintzane Arana > Irudi Gidatuan eta Musikan espezializatutako musikoterapeuta

"Ospitaletan terapia osagarri bezala erabiltzen da, oso onuragarria baita"

MIREN ARREGI > BERGARA

Bergarako Musika Eskolako musikoterapia saioetako irakaslea da Aintzane Arana joan den ikasturtekin; hain zuzen ere, Musika Eskolan aukera hori eskaintzen hasi zirenetik. Pianoaren soinua da bere klaseetako oinarria eta laister hasiko duten ikastaroan ere bera izango da gidaria.

Zer da musikoterapia?

Guztiok erabili dugu noizbait musikoterapia. Hanka bat mugitzeko edo emozio batekin konektatzeko musika erabili dugu, edo komunikazio barrerak ditugunean ere musika erabiltzen dugu. Azken finean pertsonen arteko hartz-eman eta osasuna hobetzeko erabili izan dugu musika. Gertatzen dena da musikoterapia zerbaita egiten denean zientzia bat moduan egiten dela; hala, musikoterapia arduratzen da musika entzuten edo egiten dugunean gertatzen den prozesuaz edo-eta pertsonarengan sortzen dituen aldaketetaz.

Beti existitu izan da?

Musika da hizkuntza unibertsala, betidanik baloratu eta erabili izan den artea. Hitzez esprestatu ezin diren gauzetaurako erabiltzen da musika; galera prozesuetan adibidez, musika mota bat ipintzen da. Bestetik, funtzio soziala ere badu, izan ere, aldarrikapen sozial askok musika edo abesti bat dute ikuz bezala eta hori ere musikoterapia da. Gaur egun, horrek guztia garapen bat izan du eta horrek pertsonengen zein eragin duen aztertzen da.

Zein da helburua?

Pertsonen arteko hartz-eman eta osasuna hobetzeko erabiltzen da. Musikoterapia zientzia da eta patologia askotan terapia osagarri moduan erabiltzen da. Ospitaletan, minbizia kasuetan, besteak beste, erabiltzen da. Ospital batzuetan musikoterapeutak dituzte, zientifikoki frogatuta dagoelako musikoterapiak onurak eragiten dituela pertsonengen; arazo fisiologikoak jaitsi egiten ditu, ansietatea gutxitzen du... Hainbat onura ditu osasunean.

Zein eragin du pertsonengen?

Musika da emozioen hizkuntza. Erresilientziarekin zerikusia du; fisikan gorputz batek trauma bat sufritzen duenean gorputz horrek berez errekupeatzeko



Aintzane Arana musikoterapia saioen gelan.

MIREN ARREGI

duen kapazitatea da erresilientzia. Boris Cyrulnik psikologo frantsesek erresilientzia kontzeptua sartu du psikologian eta hark esaten du pertsonak baduela ahalmen hori ingurune erresilente bat eskaintzen bazao. Musika oso aproposa da ingurune hori sortzeko; azken finean musikak garapen pertsonala eskaintzen du.

Gizarteko kolektibo guztiei zuzenduta dago, ezta?

Bai, eta hori da duen abantaila nagusietariko bat. Pertsonok gustuko dugun artea da musika. Bi mota musikoterapia bereizten dira. Lehenengoa da musikoterapia aktiboa, eta oinarria da musika egitea; teknika printzipala, berriz, inprobisazio musikalak. Horrek hitzez komunitatua ezin diren pertsonen komunikatzeko bidea ematen die. Bigarrena da musikoterapia rezeptiboa edo harkorra, musika entzutean oinarritzen dena, pasiboa.

MUSIKOTERAPIA

"Musikoterapia musika entzuten edo egiten dugunean gertatzen den prozesua da"

HELBURUA

"Pertsonen arteko harremanak eta osasuna hobetzeko tresna da"

OSASUNA

"Ospitaletan ere erabiltzen da, frogatuta dagoelako gaixotasun kasuetan terapia osagarri moduan ona dela"

Bergarako Musika Eskolan eskainiko duzuen ikastaroa zertan oinarrituko da beraz?

Musikoterapia rezeptiboa, hau da, musika entzutean. Bereziki, Hellen Bonny musikoterapeutak 60. hamarkadan sortu zuen irudi gidatua eta musika metodoaren ezagutza esperientziala da ikastaroan egingo dena. Hellen Bonnyren oinarria da musika klasikoa eta ikastaroa metodo hori ezagutzeko da.

Adinaren arabera metodoak aldatzen dira?

Pertsona nagusiek nahiago izaten dute musikoterapia rezeptiboa edo harkorra, eta umeek, berriz, aktiboa. Umeak sormen prozesuan sartuta daude eta inprobisazioa asko gustatzen zaie. Musikoterapiaren helburuetako bat da sormena garatzea eta politiki-poliki helduak ere hasten dira irekitzen. Horrekin batera, hel-

duak ere, hasieran rezeptibista moduan aurkeztu ditugunak, inprobisatzera ere ausartzen dira.

Eta pertsona bakoitzaren egoeraren arabera?

Bakarkako saioetan, pertsonaren ahalmenak, gaitasunak eta egoera baloratzen dira eta horren arabera zehazten dira teknikak.

Osasun arloan ere erabiltzen dela esan duzu...

Minbizia edo bihotzeko arazoak dituztenekin erabili ohi da eta baita gaixotasun kronikoak dituzten pertsonenkin ere; kasu horietan terapia egokia izan daitete musikoterapia. Alzheimer kasuetan, adibidez, esaten da pertsona hori erabat deskonektatuta dagoela errealtitatetik, eta horikusten da musikak duen ahalmen potentziala; izan ere, pertsona horrek musika esanguratsu bat entzuten badu, gai izaten da abesteko eta kasu batzutan geratutu izan da momentu hori hitzez adieraztea.

Garunean eragiten du?

Bai. Garunean, gorputzean eta bihotzean ere ukitzen gaitu musikak. Zientifikoki, entzumen nerbioak gure garuneko sistema linbikoarekin lotzen dira eta horrek eragiten du erantzun emocionala.

Zein herrialde dira erreferente musikoterapiari dagokionean?

Erreferente akademikoak nire kasuan izan dira Australian (Melbourneko irakasleak izan ditut) eta Danimarkako Aalborgeko unibertsitatea, nagusiki.

Zein heziketa edo trebetasun behar ditu musikoterapeuta batek?

Musikako formakuntza beharrakoa da eta psikologia formakuntza ere behar da. Heziketa oso zorrotza izaten da eta psikologia asko lantzen da. Hori uztartzen da musikarekin; musika da erreminta, ez hitza.

Zer aurkituko du ikastaroan izena ematen duenak?

Musikoterapia ezagutzeko aukera polita izango da, eta horren barruan, Hellen Bonnyren metodoa ikusiko dugu. Hasieran inkontzienteki egiten ditugun gauzak, gustatuko litzaidake bukaeren kontzienteki egitea eta entzuten ari garenaz eta sentitzen ari garenaz jabetzea.

oharrak eta deialdiak

ARETXABAleta

> Iro Landaluzeren hitzaldia hilaren 16an

Iro Landaluze adituak perretxikoen gainerako berbaldia egingo du hurrengo egunean, hilak 16, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendik antolatuta. Beste ekitaldi batzuk ere antolatu ditu elkartea: mus txapelketa zapaturako, euskal dantzen ikastaroa eta bonsaien gaineko ikastaroa. Horietarako izenematea zabalik dago.

BERGARA

> 1933an jaiotakoek ospakizuna egingo dute

1933an jaiotako bergararrak bantzuketako elkartuko dira azaroaren 16an Azpeitxi jateanean. Aurretik, meza entzungo dute Santa Marinan. Izena emateko, 6 euro aurreratua behar dira Intxorta tabernan.

ARRASATE

> Masaje bateratu ikastaroa emango dute

Urriaren 8tik abenduaren 17ra, masaje bateratu ikastaroa emango du Yoga Elkarteak, eguztenetan, Natura Enean, 21:00-22:30. Izenematea: 943 79 35 76 / www.arrasateyoga.org.

ARRASATE

> Literatura solasaldieta rako izenemate epea

Euskarazko eta gaztelaniazko literatura solasaldiak antolatu

ditu Udal Liburutegiak. Euskarazkoak Iban Zalduak koordinatuko ditu, eta urriaren 28an izango da lehena; gaztelaniazkoak Rikardo Arregik zuzenduko ditu, eta urriaren 22an hasiko dira. Izenematea zabalik dago urriaren 17a arte, liburutegian.

BERGARA

> 1968ko jaiotakoen bazkaria

1968an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute urriaren 25ean, Tartufo jatetxeen. Joantekoa egiteko autobusa izango da. Izenematea Deportivo tabernan. 10 euroko aurrerapena.

ANTZUOLA

> Lokomozi oportunitatea gaineko berbaldia

Lokomozi oportunitatearen inguruko berbaldia antolatu dute erretiratuen elkartea eta Bizikasik. Gaur, astelehen, izango da, udaletxean, 17:00etan.

BERGARA

> 1943an jaiotakoak Hondarribira joango dira

1943. urtean jaiotakoek Hondarribira irteera egingo dute urriaren 25ean. Bisita turistikoa, txikiteoa eta bazkaria izango dituzte han. Izenematea zabalik dago hilaren 20a arte, Fernandez oihal dendar (943 76 53 22) edo Arantxa Askasibarri deitura (943 76 18 13).

ESKORIATZA

> 1958an jaiotakoek, Errioxara irteera

50 urte egiten dituztela ospatzeko, Errioxara irteera egingo dute 1958an jaiotakoek urriaren 18an. Parte hartzea, 50 euro sartu Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

ARRASATE

> Elikadura natural eta energetiko ikastaroa

Jesus Romero sukaldaritzan naturalean adituak elikadura natural

eta energetikoaren gainerakoaren gainerako ikastaroa emango du. Argibideak: 943 77 16 70 / 695 78 00 58 / jesusrom@euskalnet.net.

ANTZUOLA

> Ate irekien jardunaldiak Torresoroan

Herritarrek Torresoroa ezagutu dezaten, ate irekien jardunaldiak izango dituzte hilaren 10ean, 18:00-20:00, eta 11n eta 12an, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

ESKORIATZA

> Biodantza ikastaroa hasiko da urrian

Biodantza ikastaroa emango du Juan Manuel Pascualek eguznetan, hamabostean behin, 19:00etan. Izenematea, Itzar dendar.

ARRASATE

> Yoga ikastaroa emanego dute Arrasaten

Sanatana Dharma Yoga Eskolak ikastaroa emango du, astelehen eta eguznetan (09:30-11:00) eta martiizen eta eguznetan (19:15-20:45). Argibideetarako: 635 71 06 16 (Maite) / 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABAleta

> Gazeendako sukaldaritzako ikastaroa

18 urtetik gorako gazeek hasiera mailako sukaldaritzako ikastaroa egiteko aukera dute. Urriaren 22an hasi eta azaroaren 19an bukatuko da, eguztenero, 19:30-21:30. Izenematea zabalik dago kultura etxeen.

ARRASATE, ARETXABAleta, ESKORIATZA

> Surf ikastaroa antolatu dute gazttxoendako, datorren zapatuan, Zarautzen

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteleku eta gazte txokoak Zarautzera joango dira urriaren 11n, zapatua, hango surf eskolakoenkin ikasteko eta ibiltzeko. 12-16 urte arteko edozeinek eman dezake izena dagokion herrian. 12 euro da. Argibideetarako telefono hau ipini dute: 943 79 54 46.

943 25 05 05

goinkaria@goiiena.com

etxeko leihotik



Ubane Madera > arrasate@goiiena.com

Ezkutuko lana eskertu beharra dago

M aritzu Kajoiren Nobenaixuko aurtengo "inbutu preziatuak" boluntarioi eman dizkie Komisiñuek. Kasu honetan, Arrasateko dantza taldeak sortu eta haien bizirauteko lanean eten barik ibili diren hiru emakumezko: Marga Mercaderri, eta Itziar eta Xeli Arregi ahizpe.

Erabaki ezin hobea pentsatzen zait. Badelako ordua halako pertsonen lana goraipatu eta eskertzeko. Zenbat lan musu-truk, zenbat buruhauste eta kezka eta batez ere, zenbat ardura hartzitzen diren urte horietan! Umeei dantzak erakutsi, entseguak egin, maiatzetik urriira herririk herri ibili, haurren egunetik haurren egunera... Gure kulturaren atal horrek bizirauteko ezinbestekoak izan da hiru emakumeok moduko jendeak egin izan duen lana. Izan ere, halakoak herri guztietan daude. Herri guztietan eta herrietako talde desberdinatan: kirol taldeetan ere badira, euskararen aldekoetan, jaietan (Komisiñua bera, Arrasaten), mendiko taldeetan... Eta ekimenek aurrera egiten duten bitartean, inor ez gara eurekin akordatzen, bakarrik egiten dugu hori halako talde edo ekitaldiren bat desagertu egiten bada. Horregatik, eskerrik asko eta beondeizuela!

"Bada ordua boluntarioen lana goraipatzeko eta eskertzeko"

> Haurren egunetan

ohitura da kanpotik datozen dantzari gazteak etxe partikularretan hartzea bazkari ordurako, baina geroago eta zailagoa da hori lortzea, familia askok ez dute- eta lan hori hartzu nahi.

> Maritzu fenomenoa.

Atentzia deitzen dit Maritzu Kajoiren indarrak; Arrasaten ez ezik, leku ugaritan ezaguna izateaz gainera, gaueko jaia zena, egun osoko jai bilakatu da berez, inortxok bultzatu barik.

debagoiendarrak kanpoan

Amaia Etxebeste > Arrasate

"Lasaitasuna eta jende aniztasuna da Granadatik gehien gustatzen zaidana"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Betidanik gura izan du Amaia Etxebesteak (Arrasate, 1981) Arrasaten denboraldi baterako utzi, eta zerbitzu berria ezagutzea. Aurkitu du bere nahia betetzeko une egokia eta Granadara egin zuen alde orain hiru aste eskas; ondo integratua dela dio. Ingrune naturalean kirol ariketen modulu bat dabil ikasten eta igeri egitea, lagunekin irtetea eta parranda egitea ditu gustuko.

Zergatik utzi duzu Arrasate Granadara joateko?

Aspalditik nuen Arrasatetik alde egiteko gogoa, eta orain suertatu zait joateko une egokia. Ikeri nahi nuen modulua Oñatin egin behar nuen hasieran. Hala ere, aurretik Granadan izandakoa nintzen eta banekien gustatu egingo zitzaidala.

Nolakoa da zure egun normal bat Granadan?

Goizez institutu ordutegia daukat, 8:30etik 14:30era. Arratsalde batzuetan inguruko agro-ekologia kooperatiba txiki batean ibiltzen naiz. Asanblada bidez funtzionatzen duen elkartea bat da eta hor dihardut pixkanaka muturra sartzen, baina oraindik hasiberria naiz. Hala ere, hemengo bizitza hangoa baino askoz lasaiagoa da, eta lasaitasun hori asko estimatzen dudan zerbitzu da.

Ze ezberdintasun ditu Granadak Arrasaterekiko?

Ezberdintasun handiena moduan lasaitasuna aipatuko nuke. Bestalde, denetariko jendea dago; kultura, nazionalitate eta pentsamendu aldetik oso anitz da. 80.000 ikasle inguru izaten dira



Askoz merkeagoa

Amaia Etxebeste Granadan bizitza Arrasaten baino askoz merkeagoa dela dio; kañaeta pintxozen kultura maite du.

urtean, pentsa noraino hel daitekeen kultura aniztasuna.

Gainera, hemengo bizitza Arrasateko baino askoz merkeagoa da. Zerbeza kaña eta pintxozen kultura honetara oso ondo egoikitu naiz (kar-kar). Lau zerbeza edan eta afalduta zaude, eta ez hori bakarrik, noski, bizitza orokorrean askoz merkeagoa da.

Zein alde on ditu Granadak? Eta zein alde txar?

Alde onen artean, hiri batzanda herri txiki itxura duen zonalde batzuk dituela aipatuko nuke. Zonalde hauetako asko oso politak dira eta nabaria da bertako lasaitasuna.

Alde txarrak ere baditu Granadak, hala nola, iskanbila handia, kutsadura maila alta eta garraioan izaten diren arazoak.

Horretaz gain, Granadako bertakoa den jendeak umore txarra dutela esaten da hemen. Hala ere, leku guztietan moduan, deneztik dago.

Zure kasuan galdezko nahiko azkar bada ere, hiru asteotan bota duzu zerbitzu faltan?

Ba bai, hiru aste eraman arren hasi naiz zenbait gauza faltan botatzen, nire jendea batez ere. Bigarren mailako beste elementu batzuetaz ere akordatzen naiz, adibidez, gure mendien berdetasunaz. Hemen ere badira mendiak, baina Euskal Herriko berdetasunarekin ez dute konparaziorik.

Eta nola ez, aurten Maritzu Kajoi gabe geratu naiz eta akordatu naiz... Azkenik, euria ere bota dut faltan, azken egunotan zertxobait egin duen arren.

kale inuesta**Gripearen aurkako txertoa hartzeko ohiturarik baduzu?**

Jaione Belastegi
Erretiratua
Bergara



Julia Cid
Erretiratua
Bergara



Euxebi Beain
Erretiratua
Bergara



Mari Carmen Gonzalez
Erretiratua
Bergara

Ez dut txertoa hartzen, Gainera, oraindik ez zait heldu berau hartzeko papera; gizonari aldiz, bai. Ni osasuntsu nago oraingoz, botikak hartzea ere ez zait gehiegiz gustatzen eta ez ditut hartzan normalean.

Ez dut hartzan. Oraindik 65 urte bete ez ditudanez ez zait tokatzen, baina txertoa hartzeko momentua iristen zaidanean hartuko dut. Hala ere, ez dut gripea hartzan eta hartuz gero, nolabait eramango nuen.

Ez dut txertoa hartzen, medikuak ez dit ezer esan oraingoz. Ez dut inoiz griperik izan; joan zen urtean, birus bat hartu nuen baina ez zen gripea. C Bitamina asko hartzan dut zukuetan, horrela zaintzen naiz ni.

Bai, hartzen dut. Duela sei edo zazpi urte hasi nintzen hartzen eta jarraituko dut. Gripea hartzeko arriskuak hor jarraitzen du, baina harutz gero askoz arinagoa izango da eta aspirinekin ondo eraman daiteke.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

OÑATI**> Olaiturri aparkalekuko ispiluari buruz**

Oñatiako jaietan egoten den eskoriatzar batek deitu digu Oñatiako Olaiturri aparkalekuko sarrerako ispilua apurtuta dagoela esateko: "Konpondu egin beharko lukete; bestela, kontrako norabidean datozen autoak ez ditugu ikusten".

BERGARA**> Udaltzain gehiago aste bukaeratan**

Bergaran aste bukaeratan udaltzain gehiago jarri behar dituzela irakurri duen irakurle batek deitu digu: "Pozten naiz aste bukaeratan udaltzain gehiago jarriko dituztela jakitea. Ea bada, aste bukaeratan, eta batez ere zapatuetako azokan egoten den auto pilaketei irtenbidea ematen dioten. Aste bukaeratan udaltzainik ez dagoenez auto asko usten dituzte bigarren ilaran".

OÑATI**> Sagardo dastatzea oso ondo joan zen**

Gaur bukatuko dituzte Errosaiko jaiak oñatiarrek mozarro egunarekin. Baina, zapatuko Herri Egunaren inguruko iritzia eman digu herritar batek: "Herri Eguneko azoka urteroko hitzordua da, baina, oñatiar guztiek irteten gara kalera baserritar jantzita. Batez ere, azpimarratuko nuke sagardo dastatzean egoten den giroa. Koadrilak baserritar jantzia, gurasoak seme-alabekin eta nagusiak; denok batera egon ginen plazan. Sagardo giroa izan zen protagonista zapatuan, eta oso gustura ibili nintzen".

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendakoa Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil. **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Nerea Menor, Arritxu Barruso Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Ifaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mirela Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako
Foru Aldundia

zorrozailea

Joxemari Muxika

Ghetto sortzaileak

"Atzo euskararen ghettoan hesi zati bat lurrera etorri da. Uste dugun arren, ghettoaren hesia kanpokoek eraikitzen dutela, euskarraren kasuan bi alderdiek eraikitzen dute horma sendoa: barrukoek, ustez euren defentsarako, eta kanpotik ere ahaleginak egindira ghetto barruan gera daitezten euskaltzaleak"

El Correo > 2008-10-03



Euskararen ghetto kontu honek zer pentsatua eman dit. Egunkari guzietan agertu denez guztioi irakurri ahal izan dugu PSEk Euskara Askatasunean manifestua aurkezteko egin duen ekitaldiaren berri. Egun horretan jende multzo zabala bildu zen: pentsaera, bizimodu eta erakunde askotakoa, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz bazekiena. Solaskideek elkarri ulertzten ziotenez bakoitzak nahiago zuen hizkuntza erabili zezakeen, ez zegoen inor hizkuntza aldatzera derrigortu beharrik.

Horrelako egoeretan posible da joera askotariko artean era demokratikoan komunikatzea, ez baitago aurpegi txar eta purrustedan eraginik. Aniztasun egoera horietan pentsaera ezberdin arteko talkaren bat egon daiteke, baina elkar ederki ulertzten dute bakoitzak gustoko duen hizkuntza erabiliz bere askatasunak emandako aukera hautatuz. Komunikatze kuestioagatik ghettorik sortzeko arrazoirik ez da gertatzen, herritarren arteko eguneroko harremanetan gertatzen ez den bezala.

Nor dabil ghettoa sortzen? Niretzat alde edo alderdi batekoak zein bestekoak izan, euskara garatzeko bidea egiten dutenak, euskaraz ari direnak, ez dute ghettorik sortzen, euskaradun guztiek erdaraz ere badakitelako ez dute mugarik ezartzen. Izatekoan euskaragabeak eta batez ere euskara eta euskarazko kultura ezagutu nahi ez dutenak dira ghetto sortzaile.

Euskara alderdien ghettoetatik atera nahi dela adierazten duen manifestu bat izanik, aipatutako ekitaldirako deialdia egin zuen alderdiak ez zuen lortu beste alderdietakorik erakartzea, beharbada ez zuen deialdirik zabalduko. Edozela ere alderantzizko itxura utzi du. Hala eta guztiz ere ospatu den ekitaldi soziala eta gero "euskararen plaza zabalagoa da", euskarari presigioa eman diolako.

"Euskara garatzeko bidea egin dutenak, euskaraz ari direnak, ez dute ghettorik sortzen"

"Ekitaldirako deialdia egin zuen alderdiak ez zuen lortu beste alderdietakorik erakartza"



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> BERGARA

Zabalotegiko kultur areto berrituak egunen zabaldzu zituen atea > 11



> OÑATI

Mendaroko Anton Urreztik irabazi zuen domekan jokatutako pintura lehiaketa > 12



> ANTZUOLA

Errekaldeko gazte txokoa zapatuetan eta domeketan arratsaldez egongo da zabalik > 14



Alberto Elortza, Amantxio eta Inaxio Mugartza gazta lehiaketara aurkeztutako gaztak puntuatzeko unean. Gomiztegi Kooperatibak eraman zuen sari nagusia.

JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI > HERRI EGUNA

Nobedade gehiegi barik, baina, aurten ere sekulako arrakasta Herri Eguna

SAGARDOA

Gipuzkoa osotik iritsitako 13 sagardo mota dastatzeko aukera egon zen

GIRO POLITA

Oñatiarrek, beste behin, erakutsi zuten Herri Eguna egun handia dela

ARRITXU BARRUSO > OÑATI

Oñatiarrek bigarren aste bukaera zuten hau festa giroan, baina, zapatuan ez zegoen neke arrastorik. Urtero moduan oñatiarrak Herri Egunean, zintzozintzo, baserritar arropak jantzia festara irten ziren.

Askok eta askok urteroko ibilbidea errepikatu zuten. Ganadua ikusi, barazki batzuk erosi, sagardo pixka bat edan eta gose antza kentzeko taloa txorizoarekin. Izan ere, badago zer ikusi, erosi eta dastatu Oñatin Herri Egunean. Oñatiarrez gain, ibarreko jende ugari gerturatzentz da egun horretan Oñatioko plaza eta unibertsitate ingurura. Ibarretik kanpo ere, Bartzelonatik, Tarragonatik eta Madrildik iritsitakoak ere ikusi genituen herriko plazan sagardo basoa eskutan zutela. Edalontziak balio zuen euroaren truke nahi beste sagardo edateko aukera izan zuten.

Unibertsitate inguruan, bestetik, barazki eta fruitu ederrak ikus zitezkeen: kalabaza ikara-

garriak (batzuek metro bat baino gehiago neurten zutenak), sagarrak, porruak, azak, fruitu lehorrok... Fruituz egindako arte lanak ere topatu zitezkeen.

Taloak ere antza denez gozoak zeuden, urtero moduan. Sekulako ilarak egin behar izan zituzten taloa txorizoarekin jan nahi izan zutenek. Unibertsitateko

klaustroan, bestetik, artisauak azoka polita eskaini zuten. Ganadua, barazkiak, taloak, sagardoa, eskulanak... Azoka bete-betea benetan Herri Egunkoa.

Aurten ere sari ugari jaso zituzten azokan parte hartutakoek

Sei lehiaketa izan ziren guztira herri eguneko azokan. Ardi eta bildots lehiaketak Aldai baserrikon Nestor Altzelaik irabazi zituen eta ahari lehiaketa, berriz, Urtiagaineko Aitor Arnaizek. Fruituen kasuan, Iruatz Garaiko Felix Azkargortak lortu zuen lehenengo postua eta barazkietan Arendoi baserrikon Marta Hernandezek. Bi lehiaketa horietan, guztira, bost parte-hartzaile izan ziren.

Gazta lehiaketara 16 gazta aurkeztu ziren eta Gomiztegi Kooperatibak lortu zuen sari nagusia.



Barazki eta fruitu lehiaketako irabazleak.

JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA > MONDRAREN II. FUTBOL ESKOLA

Futbola maite duten neska mutikoak ilusioz beteta joango dira Mojategira

8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoek har dezakete parte gaurtik Mondraren futbol eskoletan

Iaz arrakasta borobila izan zen; gaztetxoen portzentaje altu batek Mondran amaitu zuen

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Kirol prentsan, fitxaketa handiek, kluben arazo ekonomikoek eta jokalarien zurrumurruak betetzen dituzte egunkarietako orri asko. Baino futbola ez da hori bakarrik, heziketarako tresna ere bada. Hau horrela dela frogatzeko, gaur arratsaldean Mojategira hurbiltzea da onena.

Izan ere, Mondrak antolatzen duen futbol eskola gaztearen bigarren edizioak gaur du lehen hitzordua; Mojategiko futbol zelaian, 17:00etan. 1998. 1999. eta 2000. urteetan jaiotako neska-mutikoek har dezakete parte ekinmen interesgarri honetan. *Futbolean jokatu nahi?* lelopean Mojategin izango diren neska mutikoen artean ilusioa izango da nagusi.

ALBERTO PEREZEN GIDARITZAPEAN

Iaz bezala, Alberto Perez izango da gaztetxoenei futbolaren hastapenak erakutsiko dizkienea. Izan ere, hastapenetan hartzan diren ohiturak baitira garrantziotsuenak. Hala, neska mutiko

bakoitzaren trebetasunean zentratu baino, Perezek futbolaren oinarrizko lezioak irakatsiko dizekie haurrei, hau da, diziplina, errespetua eta adiskidetasuna.

ARRAKASTA BOROBILA

Mondraren historian iaz jarri zen martxan lehen aldiz ekimen hau. Eta lehen aldia izan bazeen ere, ezin arrakastatsuagoa izan zen; 50 bat neska mutiko aurkeztu ziren.

Parte harte altuan izango zuen eragina Mojategi futbol zelai berriak. Futbolean lehen urratsak emateko ez baita gauza bera Mojategiko zelai artifizialean jokatzea edo aintzinako Atxabaleko hondarrean egitea.

BERTAN AURKEZTU, BESTERIK EZ

Mondraren eskola gaztean partehartzea simplea da oso, nahikoa da gaur 17:00etan Mojategin aurkeztea. Entrenamendu baten antzera, hasiberriek futbolaren teknika ikasteko ariketak egingo dituzte batez ere; hala nola, baloiarekin trebatzeko ariketak eta futbol partidu laburra.



Mondraren futbol eskola gaztean parte hartzen duten haurretako askok herriko taldean sartzea lortzen dute.

MONDRA

MONDRAN SARTZEKO AUKERA

Gaztetxoenei kirol elkartea bat eta futbola zer den irakastea dira ekimen honen helburu nagusiak. Baino, noski, bide batez, Mondraren harrobia sendotzeko ere balio du. Iaz, adibidez, aurkeztu

ziren neskekin kadete taldea egin zuten, eta egun senior mailako jokalari Maitane Gallastegik zuzentzen du taldea. Mutilei dago-kienez, bestalde, portzentaje altua pasatzen da Mondraren alebin taldera. Gaztetxoenek soberan

dute ilusioa, baina Mondraren amaitzeako aukera dutenez, urduritasuna ere presente izango da. Nork daki, etorkizuneko Aitor Lopez Rekarte edo Mikel Gonzalez aurkez daiteke gaur arratsaldean Mojategin.



MIREN ARREGI

Uriarteren erdarazko edizioa, salgai

Pasa den egunean Kulturateko hitzaldi aretoa lepo bete zen Celestino Uriarte komunista arrasatearraren bizitza hizpide duen liburuaren gaztelerazko edizioaren aurkezpenean. Joxe Ramon Garai egileaz gain, Pedro Gartzia eta Teresa Harina, Joxe Iriarte Bikila eta Larraitz Altuna izan ziren. Liburua 19 eurotan da salgai, ohiko kioskoetan eta Ttukun-en.

OPORRAK > 'GOMENDATZEN DIZUT' LEHIAKETA

Gomendio asko eta oso onak egon dira

37 gomendio jaso dira eta 500 euroko saria zozketatu egingo da. Gomendio guztiak euskarazkoak izan dira, bat ezik

artean 17 parte hartzale izan dira, 10 emakumezko eta 7 gizonzko. Parte hartzale guztiak 18 eta 34 urte bitarteko kategoriaren barruan sartu dira. Gainera euskaraz jaso dira gomendio guztiak, bat ezik.

LEKUA GOMENDATZEN

Normala denez, lekuak gaineko gomendioak jaso dira batez ere. Besteak beste, Olite, Biarritz, Pirinioak, Katalunia, irla ezberdinak, Andaluzia, Maroko eta Guatemala moduko lekuak gomendatu dituzte. Baino beste erako informazioa ere eman dute parte hartzaleek, hala nola, ostatu hartzeko lekuak eta bitxikeria interesgarriak.

Gazte Bulegoak jakinarazi du oso argazki politak jaso dituztela. 500 euroko saria laster zozketatuko dute.

> MUSIKA

Cool Circus taldeak geldialdia egingo du bira amaitzean

Cool Circus talde arrasatearrak kontzertua emango du egubakoitz honetan 3.60 aretoan. Porco Bravo Barakaldo-ko talde ikusgarriarekin batera joko du eta emanaldia 23:30an hasiko da.

Kontzertu honek Cool Circus-en bira txikiari itxiera emateko balioko du. Gero, geldialdia egingo dute.

> MASAJEA

Mendebaldeko eta ekialdeko masajeen hasierako ikastaroa

Arrasate Yoga elkartea antolatuta, eguztzen honetan hasita eta abenduaren 17ra arte, masaje bateratua egiteko ikastaroak emango dira. Helburua ekialdeko eta mendebaldeko masajeak uztartzea eta sormena garatzea da. Jose Luis Armendiak emango du. Izena ematea: 943 79 35 76.

KULTURA > ZABALOTEGIKO ARETOA

Areto txikia baina erosoa ikusleendako

Stirman argentinarraren 'Entremets' lanak sortu ditu aretoko ikusleen lehen barre algarak

Aretoa "halakoetarako nahikoa" dela adierazi zuten lehen ikuskizunera hurbildutakoek

JASONE ZABALA > BERGARA
Zabalotegiko aretoak IX. Txontxongilo Mostrarekin zabaldutu areto eraberrituko atea. Eguenean oihal irekitzea Diego Stirman antzezle argentinarrak egin zuen. Guztiz arrakastatsua izan zen. Areto berriak 120 eserleku ditu, egoeraren eta ikuskizunaren arabera kendu edo ipini egin daitezkeenak; aretoa lepo

bete zen estreinaldian. Stirmanekin entzun ziren areto eraberrituko lehen barre algarak antzezte argentinarraren eskutik.

ARETOA EROSOA

Bertara hurbildu ziren ikusleen ahotan behin eta berriz entzuten zen "erosoa" hitza. Txikia – formatu txikiko ikuskizunendako-baina gustu handiz egindako.



Zabalotegi aretoak egunean zabaldutu zituen bere ateak.

JOSETXO ARANTZABAL

Stirman antzezlea duela hamar urte egon zen gure artean bere ikuskizuna eskaintzen, baina orduan kartzela zaharrean izan zen. Areto askotan egondako antzezlea da Stirman, eta berak esan digunez "areto onenetariko-

en artean dago Bergarako Zabalotegikoa; oso ondo laga dute". Aretoaren ibilbide berri honetan jendea gustura azaldu baldin bada ere, Udalaren asmoa herrian kultura mailan dagoen hutsunea beteko duen aretoa egitea da.

ZER IRUDITZEN ZAIZU ZABALOTEGIKO ARETO BERRIA?



Itsaso Azkarate
Taun Taun taldeko kidea



Diego Stirman
Antzezlea



Justina Elexpuru
Ikulsea



Mikel Ibartzabal
Ikuslea

"Oso polita. Ikusle aldetik, estreinaldi honetan, behintzat, etorri diren guztiendako egon da lekua eta ikusi egin beharko da aurrerantzean. Formatu txikiko ekitaldieta rako leku egokia da. Oraindik ere aretoak detaile txiki batzuen aldaketa behar du".

"Aretoa oso egokia da. Eskenatokiaren koko espazioak dituen neurriak oso ondo daude banatuta, baita ikuslearen gertutuarena ere. Ondo egindako aretoa da. Soinuari dagokionez ere ederki dago. Antzerkia egiteko leku egokia da".

"Txikia, baina polita iruditu zait aretoa; beharbada nahikoa, sarritan halako ikuskizunetan ez delako jende asko biltzen; gainera, lehen ekitaldi honetan aretoa bete egin da eta horrek ere zerbaite esan nahi du. Itxura aldetik lehen impresioa oso ona da".

"Politika iruditu zait aretoa, nahiz eta oraindik ez dudan aukerarik izan bertako txoko guztiak nik nahi ditudan moduan ikusteko: argiak nola dauden kokatuta, tramoia... Baina lehen impresioa positiboa izan da, halako zerbaite behar zuen Bergarako herriak".

Azokako zamalanen guneko arrapala konpondu dute

Azken egunotan azokako zamalanak egiten diren gunean lanak egiten ibili dira Udaleko langileak. Bertan, arrapala konpondu da, azokako merkatariet hala eskatuta egoera txarrean eta apurtuta zegoelako. Arrapala guztia txukuntzeaz gain, baldosak ipini dituzte eta horrek batera hasieran altuera handia zuen arrapalari altuera pixka bat kendu diote.



JASONE ZABALA

> IKASTAROAK
Areto dantzetako ikastaroetan bi talde ibilikoi dira

Aretoko dantzetako ikastaroak izan duen arrakasta ikusita, Bergarako Udalak bigarren taldea sortzea erabaki du. Bigarren talde hau lehenengoaren egun eta ordu berean izango da, hau da, Agorrosin aretoan, egubakoitzero 18:30tik 20:30ra. Bigarren talde honek urriaren 10ean hasiko du ikastaroa eta abenduaren 26an bukatu. Lehenengo taldea egubakoitzean hasi zen.

Ikastaro honetarako, lehenengo ikastaroan erreserba moduan gelditu zirenez gain, kanpoan gelditu ziren artean zozketa berri bat egin da. Bigarren taldean onartutako-en zerrendak Bergarako Udaleko webgunean, kultura etxe-an eta Agorrosinen daude.

> IKASTAROAK
Mendizaletasunaren jardueretan izena emateko epea zabalik

Bergarako Eskola Kirol Kontseiluko partaideak –Bergarako eskolak eta Udalak– mendizaletasunaren gaine-ko jarduera martxan jarri du. Bi eskaintza antolatu dituzte gainera.

Lehenik eta behin, DBH-ko ikasleendako. Bertan, multi kiroleko programan dauden ikasleek ez dute ezer ordainduko eta multi kiroleko programan ez daudenek, berriz, 30 euro ordainduko dute. Bestalde, familia arteko irteerak ere egongo dira LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleendako; guztira 10 irteera izango dira.

Izena eskolan bertan eman beharko da. Horretarako azken eguna egubakoitzeta, urriaren 9a izango da.

> UDALA
Gazteria Planaren dokumentua eskura gai dago webgunean

Udalak 2008-09 ikasturterako Gazteria Plangintzaren aurkezpen publikoak egin ditu. Lehena irailaren 24an, gaztetxoendako egin zen. Eguaztenean, berriz, urriaren 1ean, profesionalei zuzenduta zegoenera, 21 lagun hurbildu ziren.

Irailaren 24ko aurkezpena, gaztexoei zuzenduta zegoenera, ikastetxe ezberdineta-ko 28 lagun inguru hurbildu ziren planaren nondik norakoak jakiteko. Urriaren 1eko-rra, berriz, guraso eta gaztee-kin lan egiten duten profesionalei zuzenduta zegoenera, 21 lagun hurbildu ziren.

Nahi duenak ikusgai dauka Gazteria Planaren dokumentua www.bergara.net bide elektronikoan.

KULTURA > IKASTAROAK

Eskulan ikastaroetarako izenematea zabalduko dute eguztenean

Kultura etxearen hartuko dituzte izenak hilaren 18ra bitartean, goizez eta arratsaldez

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Udal Kultura sailak antolatutako eskulan ikastaroetarako izenemate epea asteon zabalduko dute. Hain justu ere, eguzteneitik eman daiteke izena kultura etxearen, hilaren 18ra arte, goiz eta

arratsaldez. Kultura sailak bost ikastaroetan eskaintzen dituen plazak baino lagun gehiagok izeña ematen badute, zozketa bidez zehaztuko dituzte ikastaro bakotzeko taldeak. Behin betiko taldeak osatu ondoren, ordainketa egiteko epea zabalduko dute: helduen ikastaroetan parte hartzen dutenek 64 euro; haurren ikastaroetakoek 47 euro; eta bitxigintza ikastaroetakoek 44 euro.

Bost ikastaro eskaintzen ditu kultura sailak; hain justu ere, hari, patchwork eta puntuan;

gazteendako eta helduendako zeramika; eskulanak; bitxigintza; eta helduendako eta gazteendako pintura ikastaroak.

GEHIENAK, 40 ORDUKOAK

Azaroan hasi eta maiatzera arte egingo dituzten ikastaro guztiak, 20 orduko bitxigintza ikastaroa izan ezik, 40 ordukoak izango dira. Ikastaro bakotzeko eskolak lizapen ezberdinak dira.

Hari, patchwork eta puntuaneko ikastaroa Arantzazu Lizarralde emango du astelehenetan

edo eguztetenetan, 14:30etik 17:00etara eta 17:30etik 20:00etara arte. Ikastaro honetan 12 ikasle onartuko dituzte talde bakotzeko. Bestalde, Iñaki Jauregiatzo izango da zeramikako irakaslea, eta talde bakotzeko hamar ikasle onartuko ditu. Alde batetik nagusiendako ikastaroa emango du eguztetenetan, 18:30etik 20:00etara arte. Beste alde batetik, 7 eta 12 urte arteko gazteen-dako zeramika ikastaroa eguzteten emango du, 17:00etik 18:30era arte.

BITXIGINTZAKO BI IKASTARO

Lide Osinagak emango duen bitxigintza ikastaroa egubakotzetan egingo dute 18:00etik 20:00etara arte, eta guztira 20 orduko ikastaroa izango da. Ikasturtean zehar bi ikastaro emango ditu: azarotik urtarrilera lehenengo, eta otsailletik apirilera, bigarrena; eta 12 ikasle onartuko dituzte.

Egurra margotzeko ikastaroa martzenetan emango du Jasone Agirrek, 15:00etik

17:00etara, eta 18:00etik 20:00etara arte; eta hamar ikasle onartuko ditu talde bakotzean.

GAZTEEN PINTURA ADINKA

Nagusienak pintura ikastaroa Luis Laskurain bergararrak emango du, astelehenetan eta martzenetan 16:00etik 18:00etara, eta 18:00etik 20:00etara arte. Helduendako pintura ikastaroetako talde bakotzean 20 margolari onartuko dituzte.

Gaztetxoendako pintura ikastaroan, ikasleak adinaren arabera banatuko dituzte: 5 eta 7 urte artekoak eguztetenetan bilduko dira; 8 eta 10 urte artekoak eguztetenetan; eta 11 eta 15 urte artekoak egubakotzetan. Eskolak ordu eta erdiokoak izango dira, hain zuzen ere, 17:00etik 18:30era arte. Jabier Moiak emango duen ikastaroetako talde bakotzean 13 gaztetxo onartuko dituzte.

Ikastaro guztiak Bidebarrietako eskulan ikastaroetako lokallean emango dituzte. Informazio gehiago gura duenak 943 78 03 53 telefonora dei dezake.

PINTURA > LEHIAKETA

Anton Urreztiren margolana izan zen onena aurkeztutako bederatzien artean

Mendaroko margolariak 620 euro jaso zituen sari modura

Mirari Sagartzazu eta Jone Biain oñatiarrek ere sari bereziak jaso zituzten

M.B. > OÑATI
Parte-hartze txikiarekin (bederatzia lan bakarrik aurkeztu zituzten), baina eguraldi onarekin egin zuten atzo Ageriko IV. Pintura lehiaketa Oñatin. Udalaren laguntzarekin Oñart, Oñatioko Arte taldeak antolatutako lehiaketako sari potoloena (620 euro), Anton Urrezi mendaroarrak erohan zuen, unibertsitate aldetik Txaketua tabernako bidegurutzea irudikatuz. Bigarren saria (390 euro), Beasaingo Jokin Telleriak lortu zuen. Xaguxar taberna atzealdeko Agustindarren elizako kanpandorrean margotu zuen. Donostiako Juan Berrostek eroan zituen hirugarren sariko 260 euroak.

SAN MARTINEKO ERMITA
Nagusien mailako lehen hiru sarituen artean margolari oñatiarrik ez zegoenez, 225 euroko sari berezia jaso zuen Mirari Sagartzazuk egindako olioa lanak. Era berean, gazte mailan Jone Biain oñatiarrik bakarrik esku hartu zuenez, sari berezia jaso



Ageriko IV. Pintura Lehiaketa irabazoleak sariak jaso ondoren.

JOSETXO ARANTZABAL

zuen. Biek ala biek, San Martingo ermita irudikatu zuten, norbere ikuspegitik.

EGUNA ALDATZEKO AUKERA
Oñart taldeko kideak gustura zeuden margolariet emandako mailarekin: "Aurkeztutako lau margolan oso onak dira, eta horien artean erabaki dugu. Mai-loneko lehiaketa izan da", esan

ziguten sari banaketaren ondoren. Baina, parte-hartzaile gehiago espero zitzutela esan digu antolatzalea taldeko Jabier Moiak: "Iaz 29 egon ziren, eta gaur bederatzi bakarrik. Baina, Zumarragan, Ataunen, Balmasedan eta Etxebarrin beste lehiaketa batzuk zeuden. Hortaz, eguna aldatzearen inguruko hausnarketa egin beharko dugu".

ERAKUSKETA, BIHARTIK AURRERA

Ageriko IV. Pintura lehiaketara aurkeztu diren bederatzi lanak erakusketa batean bilduko dituzte. Hain zuzen ere, kultura etxe-ko erakusketa gelan egongo dira ikusgai, bihartik hilaren 19ra arte, astelehenetik egubakotzera, 18:30etik 20:30era. Margolanak egilearen izenarekin eta jasotako sariarekin erakutsiko dituzte.

> KULTURA
Corpus eguneko irudiak ikusgai, hilaren 26ra arte

Corpus eguneko irudiak bilten dituen erakusketa ikusgai dago parrokiako klasstroan, urriaren 26ra arte. Besteak beste, prozesioko 16 pausuak, palioa, dantzarien eta santuen arropak daude ikusgai. Sarrera doanekoa da bisitari guztiendako. Erakusketa aste bukaeratan eta jaiegunetan zabaltzen dute: zapuetan, 11:00etik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era; eta domeka eta jaiegunetan, 12:00etik 14:00etara eta 18:00etik 20:00etara. Gaur Bixamon eguna izan arren, erakusketa zabalduko dute jaiegunetako ordutegian.

> DEIALDIA
Odol-ateratzea egingo dute egubakotzean Txantxiku Ikastolan

Oporren ondorengo bigarren odol-ateratzea egingo dute egubakotzean Oñatioko Odol Emaileen taldeak antolatuta. Uztailean eta abuztuan ez dute odol-ateratzerik egin. Donostiatik datozen mediku eta erizainak arratsaldeko seietan hasiko dira ateratzeak egiten, 20:30era arte.

Txantxiku Ikastolako geletan egingo den ateratzea urteko zapzarrenaren izango da. Urtea bukatu arte, hilero, ateratze bana egingo dute. Hain zuzen ere, azaroaren 7an eta abenduaren 12an.

Odola lehen aldiz eman gura dutenek ere, egun horietan joan beharko dute Txantxiku Ikastolara, medikuekin berba egin eta emailekin txartela egiteko.



Irudian, perretxikotan aditua den Iro Landaluze bizkaitarra.

ESKORIATZA > AISIALDIA

Tortolis ludetokan izena eman daiteke

3 eta 12 urte bitarteko umeek eman dezakete izena; urte guztiko bazkidetzak 30 euro balioko du

Haurrak bi txandatan daude banatuta: 3 eta 6 urte artekoak 16:30etik 18:00ak bitartean daude, eta hortik gorakoak, 18.00etik 19:00etara.

ZERBITZUAK

Ludetekan disfrutatzearaz gain, kanpora begirako zerbitzuak eskaintzen ditu. Bazkideek, esaterako, jostailuak etxera eraman ditzakete. Familiei, gainera, jolas eta jostailuen gaineko ahokularitzia eskaintzen zaie.

Horretaz aparte, hilean behin zapatuan zabaltzen ditu atea herriko ume guztienda, eta ekintza bereziak antolatzen dituzte: Gabonetan, haur parkea ez dagoen egunetan zabalik egongo dela azaldu dute hango arduradunek.

M.B. > ESKORIATZA

Dagoeneko abian jarri dute Tortolis ludotekako bazkidetza kampaña. Urte guztiko bazkidetzak 30 euro balioko du eta interesa tuak ludotekara joan behar dira; 943 71 49 21 telefono zenbakian ere izena eman dezakete.

3 eta 12 urteko umeei zuzen dagoen jolasgunea aste egunetan egoten da zabalik.

ESKORIATZA > KIROLAK

Urriaren 19an egingo dute mendi bizikleta ibilaldia

Plazatik irtengo da 09:30ean; partaideen izenak ordubete lehenago hasiko dira hartzen

M.B. > ESKORIATZA

Mendi bizikletan ibiltzea gustuko dutenek aukera asko dituzte ingurunean datozen asteei begira. Tartean, Eskoriatzako XIX. mendi bizikleta ibilbidea egiteko aukera dute. Udalak eta Areka BTT taldeak martxa horretarako data zehaztu dute dagoeneko: urriaren 19a.

Ekitaldi horietan ohikoa den moduan, izena ibilbidea hasi aurretik eman beharko dute partaideek. Antolatzaleek azaldu dute 08:30ean hasiko direla izenak hartzen eta irteera 09:30ean izango dela plazatik. Federatuta daudenek 10 euro

ordaindu beharko dituzte. Gogorarazi dute, horren harira, federatuek txartela aurkeztu beharko dutela. Ez federatuen prezioa 13 eurokoa izango da. Kaskorik ez duena ezin izango du martxa egin.

BI IBILBIDE

Bi bide egongo dira aukeran: 27 kilometroko bide motza eta luzea 38 kilometroko luzea. Ibilbideen gaineko informazioa gura duena www.eskoriatza.net web gunean sar daiteke. Martxan parte hartzen dutenek dutxak eta bizikletak garbitzeko tokia edukiko dituzte eskura.

ARETXABAleta > AISIALDIA

Iro Landaluze izango da hilaren 16an perretxikoen gainean hitz egiten

Loramendi Euskara Elkartea perretxikoak ezagutzea dohaineko ikastaroa antolatu du datorren astean, udaletxe zaharrean

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta

Dagoeneko hasi dira udazkeneko lehenengo perretxikoak irtenetan inguruko basoetan. Azkenaldian zaletasuna eta jakin mina izugarri handitu egin dela-eta perretxikoak behar bezala ezagu tza oso garrantzitsua dela badakite Loramendi Euskara Taldean. Horregatik, ikastaroa antolatu dute datorren egunean, hilak

16, udaletxe zaharrean. Luxuzko hizlaria izango dute hara joaten direnek: Iro Landaluze aditu eza guna. Jakina denez, perretxikoen eta eskarmendu handia duen aditu hori ETBko lehenengo kateko *Udazken Loreak* saioan irten da astero, domeka gauean.

Euskal Herriko eta bereziki, inguruko basoetan aurki daitezkeen moten gaineko azalpenak

emango ditu Lanzaluzek, liburu eta diapositiben bidez. Horretaz gain, ikastaroan parte hartzen dutenen artean sor daitezkeen zalantzak argituko ditu. Loramenditik esan dute edonor joan daitekeela ikastarora eta dohain dela.

MUS TXAPELKETA

Bestalde, zapatuan, urriak 11, mus txapelketa antolatu du euskara elkartea. Eguzki-Alde elkartearen hasiko da norgehiago ka, 16:00etan. Ordubete lehenago hasiko dira partaideen izenak hartzen, 15:45ak arte.

ARETXABAleta > AISIALDIA

Gazteleku proiektua azaltzeko batzarra dago eguztenean

Gazteleku berria ezagutzea aukera izango dute gurasoek

Udalak salatu du gaztelekuaren istiluak egon zirela jaietan

M.B. > ARETXABAleta
Gazteria sailak, gaztelekura joaten diren gazteen gurasoendako batzarra deitu du. Arkupe kultura etxearen egokitzen diren instalazio berriak eta proiektua ezagutzera eman gura dituzte deialdi horrekin. Batzarra eguztenean izango da, 19:00etan, gaztelekuko guraso bileran. Gazteria sailentik hara joateko gonbita egin die guraso guztie.

Bestalde, Udalak jakinarazi du joan zen aste bukaean, San Migel jaietan, gaztelekuko lokalaren hainbat apurketa izan zirenean. Gazteria sailentik hara joateko gonbita egin die guraso guztie.

Azaldu dute zapatu goizaldean izan zirela: "Bertan indarrez sartu ziren, su-itzalgailuak hustuz eta bazter guztiek zikinduz. Udalbatza honen erabateko gaitzespena merezi dute". Eta honako hau gaineratu dute: "Udal hau intolerantea izan da, eta izango da, era horretako ekintza bandalikoezin eta egiten dituztenekin, antzerako ekintzak oso sarri geratu baitira azken urte hauetan. Udalak ahalegin berezia egingo da ekintza hauetek zeinek egin dituen jakiteko, zein izan daitezkeen nahiko garbi badago ere".



Joan den urtean egindako mendi bizikleta martxaren irudia.

GOIENKARIA



Zapatuan hasi zuten ikasturte berria gazte txokoan eta merienda egin zuten begiraleek gaztetxoekin.

JOSEKO ARANZABAL

ANTZUOLA > GAZTEEN AISIALDIA

Herri begiraleak ibiliko dira aurten gazte txokoan

Errekaldeko lokala zapatuetan eta domeketan egongo da zabalik arratsaldez

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Aste bukaera honetan ipini dute abian Errekaldeko gazte txokoa. 12 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoek aisialdiaz gozatzeko aukera izango dute zapatuetan eta domeketan, maiatzera bitarte.

Arratsaldez, 16:00etatik 20:00etara bitartean egongo da zabalik eta begiraleak gertu azaldu dira zapatu gauetan ere irekitzeko. Hortaz aztertzen dihar-dute zapatu batzuetan zabaltzea.

Aisaldi jarduerak egingo dituzte gazte txokoan: mahai joko- eta ibili, telebista edo filmak

ikusi, musika entzun... Bestalde, hilabetean behin ekintza bereziak izango dira: irteerak, egonal-diak kanpoan, ikastaroak... "Asmoa da beti ez ematea antolatutako zerbaite, euren nahiea erreparatzea eta askatasun apur bat ematea", dio begirale taldeko koordinatzaile Eider Arzelusek. Era berean, "aisaldi eskaintza heitztailea emango dugu baloreak transmitituz eta euskara eta euskal kultura sustatzuz". Horretarako sei begiralek jardungo dute txandaka gaztetxoek euren ideiek proiektuan parte hartzea aukera izango dute.

ANTZUOLAKO GAZTEAK BEGIRALE

Aurrez Arrasateko Txatxilipuri elkartea arduratu da gazte txokoaz, baina herriko gazte talde batet hartuko du lekuoa.

Zerbitzua garestia izanik, Udalak pentsatu zuten herrian auke-rra zegoela herriko jendearekin taldea osatzeko begirale lanetarako. Gazte txokoan ez ezik, udaleku irekietan eta beste hainbat ekintza jardungo du taldeak.

Begirale taldea berria da, baina aurrez langintza horietan jardundakoak dira. Beste berrikunta bat da Eguzki auzoko gazte txokoak, ikasturte honetan barrena amaitzea da asmoa eta gaztetxoek euren ideiek proiektuan parte hartzea aukera izango dute.

ELGETA > ETXEBIZITZA

Zabalik dago Uruburuko tasatuetako zozketa berrian izena emateko epea udaletxeen

Momentuz lau etxebizitza daude hutsik Uruburun eta Udalak azaroko lehenengo astean zozketatu nahi ditu

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Eguenean Elgetako udalbatzarrak, Aralar eta EAE-ANVren aldeko botoekin eta EAJ-EAREN abstentziaarekin, Uruburuko tasatuetako lau etxebizitzen zozketan parte hartzea baldintza plegoak onartu zituen. Hilaren

8an, eguztena, sinatutako dituzte eskriturak Uruburuko etxebizitza tasatuen onuradunek.

Uneotan promozio horretako lau etxebizitza, ordea, jabe barik daude eta Udalak akordio batera iritsi da Irualde Bat enpresa sustatzalearekin hiru hilabeteko epean etxebizitza horiek zozketatu eta eskriturak sinatzeko.

"Epelaburra da eta egutegi bat finkatu dugu", adierazi du Oxel Erostarbek. "Interesatuek urriaren 3tik 20ra izena emateko aukera izango dute. Hilaren 23an onartutakoena eta ez onartutakoena behin behineko zerrenda aterako dugu. Erreklamazioak aur-

kezteko epea 30era arte egongo da zabalik eta behin betiko zerrenda urriaren 31n aterako dugu. Zozketa azaroaren 6ko astean egingo genuke eta eskriturak abenduko lehenengo astean".

BALDINTZA PLEGUA

Ez da diru sarrera minimorik aurkeztu beharko zozketan parte hartzea. Diru sarrera maximoei dagokionean, pertsona bakarreko unitate familiarrek gehienez 24.000 euroko muga eza-rriko zaie eta bi edo hiru kideko unitate familiarrei gehienez 33.100 euro. Gainera, azken bost urteetan Elgetan erroldatua egon izana beharko da.

LEINTZ GATZAGA > ERRETIRATUA

Erretiratu gutxik eman du izena Nafarroara joateko

Eguenean, hilak 9, joango dira Lizarra aldera, eta azokan bueltatxoa eman eta gero Aiegi herriko Iratxe hotelera baziak duduk dute

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Nafarroa aldera antolatu duten irteera guztiz lotzeko batzarra ziren egitekoak egubakoitzean Gatzagako Toki Eder erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak. Juan Mari Makazaga idazkariak aurreratu digu gutxik eman dutela izena aurten, nahiz eta erretiratu asko egon herrian, 60 inguru: "Batzuk gaixorik dabiltsa, bes-te batzuk beste zeregin batzuk dituzte eta oso gutxi joango gara". Autobusa hitzartuta daukate dagoeneko, hortaz, daudenak daudela joan egingo dira.

Urtean bi bidaia egiten dituzte erretiratuek. Udaberriko Nafarroa iparraldean izan ziren, Elizondo aldean, eta orain udazkenean, Nafarroa erdira joko dute, Lizarrara. Eguenetan egiten dute Lizarran azoka, eta hantxe emango dute goiza gatzagarrek. Baziak herrian dagoen Iratxe hotelera joango dira, eta arratsaldean Puyko amabirjinari egingo dio-te bisita: "Dotorea da benetan eta uste dut merezi duela ikus-teak. Hala ere eguneko martxara moldatuko gara", gaineratu digu Makazagak.



Gatzagako erretiratua baziak dute.

GOIENKARIA

ARAMAIO > ZUIAKO KOADRILA

Orri-markagailu lehiaketa abian da

Marrazkiaren eta testuaren gaia lehiakide bakoitzak aukeratu beharko du; markagailuak aurkezteko epea abenduaren 5ean amaitzen da

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Abian da Zuiako Koadrilak antolatzen duen orri-markagailuen lehiaketaren hirugarren edizioa. Parte-hartzaileek abenduaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak, koadrila osatzen duten udalerrieta liburugietian, udaletxeetan edo Zuiako Koadrilako bulgoetan.

Landak folio edo kartoi mehean aurkeztu beharko da eta mota guztietako materialak erabili daitezke. Orri-markagailuen neurria honakoa izan beharko da: 4,5 x 21 centimetro. Bestelako neurriak ez da onartuko. Lehiakide bakoitzak hiru lan

aurkeztu ahalko ditu gehienez. Orri-markagailuak itxitako kartazal baten barruan aurkeztu beharko dira eta kartazalean idatzi beharko dute: *III. Orri-markagailu lehiaketa Zuiako Koadrila*.

Kategoria bakoitzeko hiru sari banatuko dituzte; irabazleak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 60 euro. Urtarrilaren 12tik aurre-rra irabazleen izenak Zuiako Koadrila web gunean egongo dira ikusgai. Lehiaketaren gaineko informazio gehiago duzue www.cuadrillazulia.com web gunean.

Kirola



> FUTBOLA

Golik ez Mondrak eta Aloñak atzo Mojategin jokatuko derbian >**16**



> ESKUBALOIA

Ford Mugarrik eta Bergarak galdu egin dituzte aste bukaerako lehiak >**18**



> ELKARRIZKETA

Euskaltel taldean jarraituko ez duela-eta, Jon Odriozolarekin egin dugu berba >**19**



Aitor Mendizabalen (ezkerrean) eta Ander Muguruzaren (pilota astintzen) arteko lehia parekatua espero zuten zaleek, baina antzuolarrak erraz irabazi zuen partidua.

JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA > SAN MIGEL SARIKO FINALAK, OÑATIN

Espero baino errazago jantzi zuen txapela Mendizabalek

Amateur mailako San Migel txapelketako finala irabazi zuen Josu Lintzoainekin

Ander Muguruza bergararraren atzelari Larrinagak pilota asko galdu zituen

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Bergarako Ander Muguruzaren eta Antzuolako Aitor Mendizabalen arteko lehia ikusteko asmoz joandako pilota zaleak, gogoz bueltatu ziren Zubikoa kirolegitik zapatuan. Ibarreko bi pilo-

tarien arteko partidua urdin koloreko izan zen: 22-8 irabazi zuen antzuolarrak Josu Lintzoainekin. Ander Muguruza bergararrak atzelaria aldatu zuen, Bengoetxea eibartarrak finalurrekoan min hartu zuelako. Eta hortxe egon zen partiduaren kakoa: Iñaki Larrinagak pilota gehiegiz galdu zituen. "Atzelari indartsua da Larrinaga, baina gaur ez du asmatu. Oro har bikote gorriak ez du duen maila erakutsi, eta garai-pen erosoa lortu dugu", esan zigun Aitor Mendizabalek.

MENDIZABALEN DEJADAK

Debagoieneko bi pilotarien lagun eta etxeoak elkartu ziren San Migel sariko finala ikusteko. Bi pilotariak ezkertiarrak eta aurrelari bizia dira. Muguruzak min handia egiten du gantxoekin, bai-

na zapatuko finalean Mendizabalek asmatu zuen hobeto dejadekin. Berehala zabaldu zuen tarte markagailuan bikote urdinak, eta 2-15 aurreratu zen. Muguruza bergararrak egindako dejada bat esker egin zuten hiru-

garrena gorriek. Baina, tantoak egitea kostatzen zitzaien: gorriek tanto bat egin orduko, bikote urdinak hiru egiten zituen. Mendizabal eta Lintzoainek 20. tantoa egin zutenean, etsi barik, Muguruzak eta Larrinagak hiru

tanto egin zituzten jarraian. Baina, berandu zen ordudako. Muguruzak txapapera botatako pilotarekin eta Larrinagak goiko koltxoira botatakoarekin amaitu zen amateur mailako partidua.

GAZTEEN FINALA PAREKATUA GOA
Gazte mailako finala parekatuagoa izan zen. Arrieta-Galartz (gerriko urdina) bikotea 22-19 nagusitu zen Arrieta-Irustaren (gerriko gorria) aurka.

Lehen bi tantoak bikote gorriak egin arren, 2-7 aurreratu ziren Arrieta eta Galartz. Partidu guztian zehar abantaila bikote urdinak izan zuen; baina, bukaieran estutu egin zuren gorriek: 8-1ko partzialari esker 19-20 jarri zuten markagailua. Azken bi tantoak baina, sakez egin zituen Iraitz Arrietak.



Bukaieran egin zuten sari banaketa ekitaldia.

JOSETXO ARANTZABAL

PREFERENTE > MOJATEGI FUTBOL ZELAIAN

Joko gutxi eta golik ez Mondraren eta Aloñaren arteko derbian

Norgehiagoka aspergarria ikusi zuten Mojategira hurbildutako zaleek; Arrasateko eta Oñatiko ikusleek lepo bete zitzuzten harmailak

MONDRA
0-0
ALOÑA MENDI

Mondra > Ander, Amu, Illart (Ekain, 70. min.), Laspur, Merca, Aratzkunaga, Arando, Txonan (Pavon, 57. min.), Julen, Loiti (Iker, 63. min.) eta Keixi.

Aloña Mendi > Oier, Aritz (Iñigo, 71. min.), Xabi, Roberto, Mikel, Unai, Axier (Agirre, 89. min.), Zubia, Sanchez, Maiztegi eta Ioritz..

Bestelakoak > Oñatiko eta Arrasateko ikusle asko bildu zen Mojategin preferente mailako derbia ikusteko.



Mondrako jokalari Julen Heriz eta Aloñako Mikel Palacios baloia menderatzeko lehian.

JOSEXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Derbi gehienetan antzera, intentsitatea gailendu zen jokoaren gainetik Mojategiko lehian. Mondrak eta Aloñak partidu aspergarria jokatu zuten, batez ere, lehenengo zatian. Jokoa nagusitu zen zelai erdian, eta batzueta jokalariak ere nahastu egiten ziren baloia kontrolatzerako orduan. Dena den, gol aukerak izan zituzten markagailuan abantaila hartzeko. Mondrako jokalari Txonanek eta Aloñako Asierrek ez zuten asmatu atezainaren aurrean bakarrik geratu zirene-

an. Dena den, aukera garbiena Aloñak izan zuen aldageletarako bidea hartu aurretik: Unai Arregik botatako falta jaurtiketak langan jo zuen.

BI MINUTUTAN, BI AUKERA
Bigarren zatiari begira aldaketak egin zituen Mondrako entrenatzaileak, eta arrasatearrek joko

ona egin barik, itxura hobera erakutsi zuen. Oñatiarrek ere aurrera egin zuten golaren bila. Hortaz, azken minutuak oso intentsuak izan ziren. Bi jokalditan partidua erabakita uzteko aukerak izan zituzten bi taldeek: 83. minutuan Unai Arregik gora bidali zuen baloia atezainaren aurrean, eta 84. minutuan epai-

leak legez kanpo utzi zuen Mondraren gola. Luzapenean, Mondrako atezain Anderrek huts egin zuen baloia aldentzerakoan, baina Idigorasek ez zuen asmatu.

Bukaieran, puntuak banatu zituzten bi taldeek, eta partidu eskasa jokatu arren, Mojategin bildutako Arrasateko eta Oñatiko zaleen txaloak jaso zituzten.

PREFERENTE > ARETXABALETAN

UDAk bigarren zatian jaso zituen golak

Real Unionek 0-1 aurretik zegoenean, epaileak ez zuen UDaren aldeko penaltia adierazi, Real Unionongo taldeko jokalariak baloia eskuarekin ukitu arren

UDA
0-3
REAL UNION

M.B. > ARETXABAleta
Irungo Real Unionek hiru gol egin zizkion UDAri bigarren zatian, atzo. 0-1 atzetik zeudela epaileak ez zuen etxekoan alde-

ko penalti garbia adierazi defentsak baloia eskuarekin ukitu zuean. Gainera, Erikok lehia berdintzeko aukera izan zuen. Jarraian, Real Unionek bigarrena egin zuen eta partidua erabakita utzi zuen. Azken minutuetan egin zuten hirugarren gola.

Hala, UDAk lehen zatian egin dako lana pikutara bidali zuen bigarrenean. "Oso motel irten gara zelaira bigarren zatian", esan zigun Igor Gordobilek.



Aritz Igartua atezainaren aurrean.

JOSEXO ARANTZABAL

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Hondarribia	9	4
2. Real Union	9	4
3. Tolosa	9	4
4. Zumaiako	9	4
5. Pasajes	9	4
6. Aloña Mendi	8	4
7. Aurrera	7	4
8. Hernani	6	4
9. Trintxerpe	5	4
10. Idiazabal	5	4
11. Mondra	5	4
12. UDA	4	4
13. Vasconia	4	4
14. Berio	3	4
15. Euskalduna	3	4
16. Anaitasuna	2	4
17. Mundarro	1	4
18. Amaikak Bat	1	4

Emaitzak

Mondra-Aloña Mendi	0-0
Tolosa-Berio	2-0
Mundarro-Pasajes	0-2
Idiazabal-Vasconia	0-3
UDA-Real Union	0-3
Euskalduna-Hondarribia	1-2
Trintxerpe-Aurrera	1-1
Hernani-Amaikak Bat	2-1
Zumaiako-Anaitasuna	1-0

Hurrengoak

Anaitasuna-Aloña Mendi	
Berio-Mondra	
Pasajes-Tolosa	
Vasconia-Mundarro	
Real Union-Idiazabal	
Hondarribia-UDA	
Aurrera-Euskalduna	
Amaikak Bat-Trintxerpe	
Zumaiako-Hernani	

BESTELAKOAK

LEHENENGOKO ERREGIONALA
Lagun Onak-Antzuola
2-0
Zestoa-BTLS
6-1
Bergara-Aretxabaleta
2-1
Iliniza-Mondra
2-2

BIGARREN ERREGIONALA

Getariako Keta-Bergara	5-1
------------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Idiazabal	1-2
-----------------------	-----

LEHENENGOKO MAILAKO GAZTEAK

Soraluze-Mondra	1-1
Aretxabaleta-Eibartarrak	4-0
Bergara-Elgoibar	1-3

OHOREZKO KADETEAK

Aretxabaleta-Arrasate	2-0
Elgoibar-Aloña Mendi	0-1
Bergara-Urola	4-2

LEHENENGOKO MAILAKO KADETEAK

Soraluze-Aretxabaleta	1-3
Arizmendi-Eibartarrak	0-4
Urki-Bergara	6-1

OHOREZKO INFANTILAK

Zarautz-Bergara	6-1
Anaitasuna-Aretxabaleta	2-4

EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi	Atsedena
Arizmendi-Soraluze	0-6
Mondra-Arizmendi B	5-0

FUTBOLA > LEHEN ERREGIONAL MAILA

UDArí irabazita, Bergarak sendo jarraitzen du

Bergarak sailkapeneko goiko postuei eusten die:
13 puntu lortu dituzte lau jardunaldietan

Aretxabaleta aurreratu zen markagailuan, baina etxeekoek buelta eman zioten emaitzari

BERGARA	2-1
ARETXABAleta B	

EDU MENDIBIL > BERGARA
Zapatuan, Agorrosinen, Aretxabaleta B taldeari, 2-1 irabazi ostean, lehen erregional mailako Bergarak sendo jarraitzen du ligaren hasieran; jokatutako lau partiduetan 13 puntu eskuratu dituzte Manu Diazzen mutilek. Etxeko bigarren garaipena izan zen zapaturkoa.

Esan bezala, Aretxabaletako bigarren taldea zuten bisitari mahoneroek. Gauzak berehalako okertu zitzaitzien etxekoei, 10. minutuan, Barberok, buruz, Aretxabaleta markagailuan aurreratu ondoren. Falta eztabaidagarri baten ondorioz iritsi zen kanpo-koen gola. Bergara zen nagusi zelai erdian, baina Aretxabaletak

ez zuen hutsunerik uzten atzealdean. 35. minutuan lortu zuen Bergarak berdinetaren gola: Mikel Otero kapitainak baloi bat jaso zuen area barruan eta sareetara bidali zuen. Bigarren gol bat ere egin zuen Bergarak lehen zatiaren amaieran; hala ere epaleak baliorik gabe utzi zuen, Imanol Cabanillas aurrelariaren jokoaz kanpoko posizioa adierazi ondoren.

BERGARA NAGUSI

Bigarren zatian Bergara izan zen jaun eta jabe, joko onik egin ez arren. 47. minutuan Josu defentsa aretxabaletarrak eskuarekin ukitu zuen baloia, baina epaileak ez zuen penaltirik adierazi. Eta handik 10 minutura izan zuen Cabanillasek aukerarik garbienetakoa: atezaizainen aurrean bakarrik geratu eta gero, ez zuen asmatu aurrelariaiak. Ibañezek Cabanillas ordezkatu zuen 59. minutuan eta Ibañez bera izan zen garaipenaren golaren egilea:



Soto atezaiza eta defentsa berargarra, arriskua urrunten.

JOSETXO ARANTZABAL

76. minutuan Nafarretek bere zelaitik ateratako falta bat jaso zuen are atxikian eta gaizki erre-matatu arren, zutoin ondotik sartu zen baloia. Aurretik Barberok jaurtiketa bikaina egin zuen areaz kanpotik, baloiak langan jo zuelarik. Etxeko aldetik, erdi lesionatuta dabilen Altzola ere zelairatu zuen Manu Diazek eta nabari zen jokoan: ordena jarri eta arriskua ekarri zuen Alzolak. Berak eta Oterok izan ituzten aukerarik onenak. Ordurako

Eneko Etxeberria ordezko atezaiana Daviden ordez zen Aretxabaletako atean. Partidua zortzi minutu luzatu zuen epaileak; aukerak ez, txartel horiak etorri ziren luzapenean. Etxekoendako, emaitza izan zen onena zapatuan.

Zure ametsak egia egin ditzaket, zure gurariak saritū.
Utziozu zeure buruari.

Tentazioa Boulevardez janzen da.
Udazken honetan, modako erosketak dohainik aterako zaizkizu beharbada.
Guztiaren berri jakiteko eta parte hartzeko, zatoz informaziogunera.
Urriaren batetik 31ra.

Boulevardeko
Udazkeneko Moda

**EPOFIKO
zara**

el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

www.el-boulevard.com

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Etxekoek 22 minututan jokatu zuten jokalari bat gutxiagorekin

Epaileak Ford Mugarriko 11 jokalari bi minutuz egotzi zituen, eta Egia Servi Chap taldeak partidua menderatu eta garaipena eskuratu zuen

FORD MUGARRI
21-27
EGIA SERVI CHAP

Ford Mugarri > Trufo, Asier, Xabi (3), Ezkibel, Lonbide (2), Zubiaurre (3), Masip (1), Santos, Aldanondo (3), Nestor (3), Josu (7) eta Joseba.

Egia Servi Chap > Sistiaga, Lopez, Martin (12), Galparsoro, Zubizarreta (3), Amin, Artetxe (4), Etxeberria (2), Mena (3), Jaka (1), Artzak, Olano (1) eta Aretxe (1).

Bestelakoak > Epaileak Ford Mugarriko 11 jokalari eta Egia Servi Chap taldeko hiru jokalari egotzi zituen atzo, Iturripen.

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Epailea eta egozteak izan ziren nagusi Ford Mugarri eta Egia Servi Chap taldeek, atzo, Iturripen jokatutako partiduan. Arrasateko 11 jokalari egotzi zituen bi minutuz. Hortaz, partiduak dituen 30 minutuetatik 22tan, etxekoek jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuten. "Ez dut aitzakia moduan jarri gura", esan zigun Ford Mugarriko entrenatzaile Edu Orgazek, "baina ez dugu baldintza berberetan jokatu, Egiako hiru jokalari bakanrik egotzi ditu-eta epaileak".

Dena den, donostiarrek beste faktore bat izan zuten haien alde: defentsa indartsua egin

zuten. Hortaz, arrasatearrek ez zuten jaurtiketa egiteko biderik topatu, eta baloi asko galdu zituzten. Egiak kontraerasoan menderatu zuen lehenengo zatia. Atsedenean 10-14 zeuden aurretik donostiarrok.

DEFENTSA ALDATU ZUTEN

Bigarren zatian, partidua ildo beretik zihoala ikusirik, defentsa aldatzea erabaki zuen Edu Orgazek. Hala, baloiak lapurtu eta markagailuan hiru goletara hurbildu ziren, baina ez zen nahiiko izan emaitzari buelta emateko. "Ez dugu aukerarik izan partidua irabazteko. Egiako jokalarietik urte asko daramatzatze elkarrekin eta oso ongi ezagutzen dute elkar. Iaz, hirugarren sailkatu ziren. Gaurkoa galtzeko moduko partidua zen; baina, beti diodan moduan, galtzeko era asko daude", esan zigun Orgazek.



Aitor Aldanondo jaurtiketa egiteko gertu.

JOSETXO ARANTZABAL

BERGARAK ERE GALDU

Bergarako taldeak galdu egin zuen txapelketako lehen partidua Ormaiztegiren aurka: 21-24. Partidu txarra jokatu zuten mahongoek defentsan, eta erasoan lau penalti eta lau kontraeraso hutsegain zituzten. "Taldea sendotzeke lan asko dugu aurretik", esan zigun Josetxo Muniategik.

Ikuskizun polita eskaini zuten aizkolariek eta harri-jasotzaileek

Oñatiako plaza jendez lepo bete zen zapatuko herri kirol jaialdia ikusteko. Alde batetik, Aimar Irigoien eta Izeta II.a harri-jasotzaileak; eta beste alde batetik, Larretxea-Atutxa eta Mugerta-Nazabalen aizkolariek ikusteko. Aizkolariek eta harri-jasotzaileek lanak tartekatu egin zituzten. Lehen ariketa aizkolariek egin zuten, eta ondoren 125 eta 138 kiloko harriekin egin zuten bi minutuko saioa Irigoienek eta Izeta II.ak. Aizkolariek ere lan polita egin zuten enbor gainean, eta berdinduta bukatu zuten.



MIREIA BIKUÑA

> SASKIBALOIA
Defentsan galdu zuen MUK ligako lehen lehia Cafes Aitonaren aurka

Defentsa motelarekin, bixamonearekin eta motibazio faltaarekin irten ziren kantxara MUK lehenengo nazional mailako jokalariak zapatuan, txapelketako lehen partidua jokatzen, eta 44-79 galdu zuten. Cafes Aitonak erasoan, gura beste puntu egin zituen lehen bi laurdenetan, eta atsedenean 17-38 ziren aurretik. Hirugarren laurdeneko hasierako lau minutuetan 8-0ko partziala egin zuten arrasatearrek, baina ez zuten abantaila murrizteko aukerarik izan. Azken tartean donostiarrek jokatu zuten hobeto.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

EROSKI
zurekin

Jon Odriozola > Euskaltel Euskadiko kirol zuzendaria

"Beti izan dut asmoa nire proiektua aurrera eramateko eta agian orain da garaia"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI
Jon Odriozolak ez du jarraituko Euskaltel Euskadiko kirol zuzendaria izaten. Euskaltelen egon den bi urte hauetan egindakoarekin pozik dago oñatiarra eta zaleak eta txirrindulariak eskertu gura ditu.

Datorren urtean ez duzu Euskaltel Euskadin jarraituko.

Bai, erabaki gogorra izan da. Euskaldun bezala, niretzat oho-re bat izan da Euskalteko parte izatea. Urte onak izan dira baina azkenean ez gara akordiora iritsi. Nik eskatu dudana eta eurek eskaini didatena oso urrun geratu dira. Hortaz, utzi egin behar izan dut.



Jon Odriozolak zapatuan izan zuen azken lasterketa kolore laranjarekin. GOIENKARIA

"Eskatu dudana eta eskaini didatenaren artean alde handia dago; urrun geratu dira"

"Nire nahia taldeari nortasuna ematea zen eta uste dut hori lortu dudala."

Adostasunera ez iristeko arrazoia lan egiteko modua izan da?

Bai, denetik izan da pixka bat. Baina, hori pertsonala da.

Argi dagoena da eurak eskainitako oso urrun geratu dela nik gura nuenetik. Nire asmoa taldean geratzea zen; ohorea da talde honetako parte izatea.

Espaniako Itzulian lan ona egin ostean, ezustekoia izan da.

Ni alde horretatik oso pozik nago. Lan ona egin dut: Suitzako itzulian, Burgosen, podiumak egin ditugu... Pertsonalki uste dut oso urte ona egin dudala eta baita taldeak ere. Txirrindulariek egin duten lanarekin pozik nago. Nik uste dut eurek ulertu dutela nik zer gura izan dudan une oro.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Italia aldetik izan dut eskaintzaren bat; han lan harreman asko ditut eta baita lagunak ere. Baina, momentu hau ez da oneña Italiana joateko. Zaila da etxeko taldea uztea Italiana joateko. Familia bat daukat eta zaila da.

Orain, ikusi egin beharko dut; ate bat itxi dut eta ikusi egin behar zer gertatzen den. Nik beti izan dut asmoa nire proiektu bat aurrera ateratzeko eta, agian, orain da garaia.

Txirrindularitzarekin lotutako proiektua izango litzateke?

Bai, txirrindularitza izan da nire bizitza beti. Berriro diot nire asmoa zer gertatzen den ikustea dela. Beste eskaintzaren bat baldin badut aztertuko dut eta bestela nire proiektua – Oñati aldean edo Gipuzkoa aldean– aurrera eramaten sariatuko naiz.

Urte onak izan dira?

Nire nahia talde honi nortasuna ematea zen eta lortu dudala uste dut. Txirrindulariak eta zaleak eskertu gura ditut.

> MENDIA

Ikus-entzunezko gaur arratsaldean Kulturaten, Besaideren mendi hamabostaldia zabaltzeko

Besaide Mendi Elkarteak antolatuta, gaur, astelehena, mendi hamabostaldiko ekitaldiak hasiko dira Arrasaten. *Cañones y barrancos de Euskal Herria* ikusteko aukera izango da gaur Kulturaten, 19:00etan. Jose Angel Martinezek eta Koldo Alavak egin dute ikus-entzunezko. Etzi, eguztzena, Bolivian zehar bizikletarekin egin-dako bidaia kontatuko digu Ramon Agirrezabalak, ordu eta toki berean. Datorren astean beste bi emanaldi egingo dituzte Kulturaten. Bestalde, urriaren 12an beteranoen martxa egingo dute Udalatxeko inguruetan.

> ERRUGBIA

Arrasateko senior mutilek 5-10 irabazi zuten atzo Elorriion, Euskal Ligako lehen jardunaldian

Arrasate Errugbi Taldeko senior mailako mutilen taldeak hasiera ona eman dio Euskal Ligari. Atzo Elorriion jokatutako lehenbiziko jardunaldian 5-10eko emaitzarekin nagusitu ziren Igor Isasiaren mutilik. 5-0 aurerrera ziren etxeakoak, baina arrasatearrek buelta eman zioten markagailuari bigarren zatian. Unai Zubizarretak eta Ander Herizek entsegu bana egin zuten. Zapatuan arrasatearrek Bera Bera hartuko dute Mojategin.



JOSETXO ARANTZABAL

Pilota profesionala atzo Zubikoan

Zapatuan amateur mailako pilotariekin eta atzo, domeka, profesional mailako partiduekin gozatu ahal izan dute Oñatiko eta inguruko zaleek. Atzo leporaino bete zen Zubikoa programatutako bi partiduak ikusteko. Estellarrean, Titin-Laskurain eta Gonzalez-Pascual izan ziren aurrez aurre. Partidu luze baten ondoren, lehenek irabazi zuten, 22-18 emaitzarekin.



LASAGABASTER
www.lasagabaster.com

Goienkaria
astehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

18 euro
2008 bukaera arte

Iraileko sari nagusia

**ARBELAITZ JATETXEAN
BI PERTSONARENDAKO AFARIA**

**Zu izan zara irabazlea,
zorionak!**

Nekane Gabilondo Ugarte

(Bergara)

Zuk ere hurrengo sari nagusian parte hartzea nahi baduzu:

SMS 5533

harpidetza@goiena.com

Tel.: 943 08 10 50



Urriko zozketa

UMEENTZAKO LIBURUAK



Bidali AG LIBURUAK 5533 zkra

BRUESA PARTIDUETARAKO SARRERAK



BRUESA GBC-DKV Joventut
BRUESA GBC-CAI Zaragoza

Bidali AG BRUESADKV 5533 zkra
Bidali AG BRUESACAI 5533 zkra

ZIRA



Bidali AG ZIRA 5533zkra

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKETATUKO DA

"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).

Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak


La Perla
CENTRO TALASO - SPORT



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena getionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haien zuentzoko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> MUSIKA

Ainhoa Lopez mezzosopranoa eta Fernando Gonzalo, organo zikloan > **22**



> ARGAZKI LEHIAKETA

Aurten deitutako udako argazkien lehiaketako irabazoleak eta azken irudiak > **23**



> ELKARRIZKETA

Jesus Etxeberria Antzuolako aguazil ezaguna elkarritzetatu dugu > **46**



Bergara txotxongiloen topaleku

Berritutako Zabalotegi Aretoan egindako ikuskizunek jende asko erakarri dute

Antzerkia, dantza eta panpinak uztartu dituzte artistek

NEREA MENOR > BERGARA
Antzezpenek etxetik atera dituzte asteburu honetan bergararrak. Eguznetik domekara arte 13 ikuskizunek antzezleku erraldoia bihurtu dute Bergarako herria. Izan ere, antzokiaz gain, herriko tabernak, gaztetxea, parkea, plazak eta kaleak bihurtu dira eszenatoki.

Helduentzako Txotxongiloen IX. Mostran, Euskal Herriko eta atzerriko artistak batu dira; bes-

teak beste, Richard Bradshaw (itzalaren erregea), De Blauwe Hond (txotxongilo holandarrak), Organik (dantza-antzerki taldea) eta Azulkillas (akrobatak).

"Jendearen erantzuna erabatekoa izan da eta balorazioa ezin daiteke positiboagoa izan", dio Itsaso Azkaratek, mostraren antolatzaleak, "primeran eran-

(26. orrialdera doa)



Hotzmuga Taldearen Superplast ikuskizuna San Martin plazan, zapatu eguerdian.



Edu Borja valentziaren Te Odio antzeziana, atzo iluntzean Zabalotegia.

JOSETXO ARANTZABAL

Bergara txotxongiloen topaleku

(23. orrialdetik dator)

tzun dute, beti bezala. Eskerrak eman nahi dizkiegu eta, bide batez, barkamena eskatu Zabalotegiko aretoan izandako emanaldietan bertara sartu ezin izan direnei. Aretoa primerakoa izan arren, horrelako jaialdi edo ekitaldietara jende asko joaten da". Herria mimatzea da mostraren helburuetako bat, "jendeari herriean aurkitzen ez diren ikus-

kizunak eskaintza". Hortzmu-ga eta Iñaki Mata egubakoitzean eta Organik taldea zapatuan, Eus-kal Herriko hiru ordezkariek

izan dira. Hirurek kaleko ikus-kizunak prestatu dituzte, oso arrakastatsuak gainera. "Organik taldeak, dantza, antzerkia eta

panpinak nahastu zituen Usono-do parkean zapatuko antzezlanean. Oso ikuskizun berezia da eta horregatik ez genekien harrera ona izango zuen herritarren artean; azkenean, baina, jende pila hurbildu zen", diote Taun-Taun taldean.

OZTOPOAK SALATZEN

Iñaki Mata antzuolarra Taun-Taun taldeko kidea da. *Barreras* bere bakarkako proiektua aurkeztu du Bergaran, Mostraren barruan. Umorea eta konplizitatea batu zituen egubakoitzeko emanaldian. Gurpildun aulkian kaleetan zehar hainbat oztopo

arkitektoniko aurkitu zituen eta jendearen lagunza eskatu zuen hauek saihesteko. Gurpildun aulkian dauden oztopoak salatu nahi ditu honela. Euria izan zen ikuskizun honen arazo handiena, baina aterkia eskuan zuela kalera irten zen Iñaki eta jendearen erantzuna ona izan zen.

Txotxongiloek eskaini dizki-guten sentsazioak askotarikoak izan dira. Bi urte barru izango ditugu berriz ere gurean. Orain, oroitzapenekin geratzeko momentua iritsi zaigu ikusleoi eta antolatzaleei balantzea egi-teko ordua.

MUSIKA > ORGANO ERROMANTIKOA

Organo zikloa hasi da Bergaran

MARIJE UGALDE

Zapatuan, Bergarako San Pedro Parrokian, Ainhoa Lopez mezzosopranoak eta Fernando Gonzalo, aurtxo organo zikloari-hsiera eman zioten.

Jose Luis Frantsesenak konposatutako *Hiru otoitz* obrarekin hasi ziren. *Andra Mari Bezerrik* obratik, lehenengoa entzun genuen eta *Magnificat*-ek itxi zuen ospakizun liturgikoa. Fernandok, San Pedroko organoak duen soinudun botere guztia era-kutsi zigun azken zati honetan. Bigarren obra, oso ezaguna den Haendelen *Rinaldo* operaren *Cara Sposa* aria izan zen.

Guy Bovet organista eta musi-kagile suitzarraren, *Sarasota* konposizioa ere entzun genuen. Jazzeko koloreak eta biziaren lasaitasunak nabarmentzen dira konposizio honetan.

Jarraian, Mozarten, *Visperas Solemnes de Confesores* obraren *Laudate dominum* zatia abestu zuen Ainhoak. Maila altuko abes-laria dela erakutsi zuten bere *fraseoak* eta *fiatoa*.

'VOLANDO DE FLOR EN FLOR'

Fernando Gonzalok *La libelula*, bere obraren bigarren mugimendua interpretatu zuen: *Volando de flor en flor*. Ondoren, mezzo-

sopranoak Rossiniren *Stabat Mater* etik *Fac ut portem* aria abestu zuen. Eugene Gigouten *Tocataren* interpretazioa egin zuen geroago Fernandok. Azkenean zatian organoaren *tuttia* entzuteko aukera izan genuen. Programa bukatzen Charles Gounoden *Sapho* operaren *O ma Lyre immortelle* abestu zuen Ainhoak. Oso eroso ikusi genuen, opera baita berak gehien lantzen duena momentuan.

Txaloen ostean, organo jole-ak konposatutako *Lo Kanta* eskai-ni ziguten estreinaldi gisa; opa-ri polita kontzertuari amaiera emateko.



Fernando Gonzalo eta Ainhoa Lopez mezzosopranoa emanaldian.

J.ARANTZABAL

the commitments
ZUZENFAN

Eguna: Urriak 18, zapatua.
Ordua: 22:30ean
 Sarrerak salgai Espaloian bertan

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85




UDAKO ARGAZKien ASTELEHENKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak


Hauek dira irabazleak!

1




OLATUAK / Jose Ramon Txintxurreta
Zumaiako Itzurun hondartzan ateratako argazki eder hau bidaia izigun Jose Ramon Txintxurreta oñatiarrak. Olatuak gora eta behera eta surf taulak hain zain. Udaoko argazki dotorea.

2



TXALUPA / Xabier Arabaolaza
Egunsenti ederra harrapatu zuen kamerarekin Xabier Arabaolaza oñatiarrak. Islan atera zuen goiko argazkia, abuztuan. Merezi izan zuen han egoteak, kolore ederrez eta lasaitasunaz gozatzeko.

3



KARAKOLA / Mireia Lizarralde
Ilunabarren irudi bitxia eta polita osatu zuen Mireia Lizarralde berigararrak. Pontevedran atera zuen argazkia eta hara etxe bizkarrean hartuta joan omen zen, karakolen antzera...

135 LEHIAKIDE

Lehiaketan 135 lagunek hartzteko parte. Guztira, baina, 447 argazki jaso ditugu, (irudi dotoreak asko eta asko) lehiakide bakoitzak bost argazki bidali ahal zituelako. Azkeneko egunean bertan 18 lagunek bidali zizkigutenean erretretuak. Epaimahaiarena gustura egindako lana izan da, baina ez duzue batere erraztasunik eman; buelta mordoa eman dizkiogu argazki bakoitzari, asko dira-eta saria merezi dutenak. Batzuk freskoak direlako, besteak barrea eragiten dutelako... Saridunak aukeratzea zaila izan da; teknika aldetik zainduta

dauenak jaso ditugu, eta baita erretretua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua, horrenbestez, datorren urtean ere animatu!


EPAIMAHAI

Goienako kideek eta Bergarako Kiñu argazki dendakoek osatu dute epaimahai eta ez da erraza izan hiru saridunak aukeratzea. Saridunek asteoan jasoko dute saria. Egubakoitzeko Goienkarian izango duzue irabazleok ezagutzeko aukera.

Sariak



1. saria: Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.



• **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaia-en eskutik.

• **3. saria:** Bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen.

Babeslea:



Laguntzaileak:



Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51



UDAKO ARGAZKien ASTELEHE


Argazki guztiak fotoblog honetan:



SAVE LAKES, SAVE WATER, SAVE UDAIPUR. Udaipuren badira hainbat leku eta laku zoragarri. Lakuak zaintzeko eta ura aurreztekero deia egiten zuten pareta batean, argazkian ikus daitekeenez. Kalean patxada osoz ibiltzen dira behiak han. /Argazkia: Nerea Ruiz de Azua/Eskoriatza



UHARTEA. Pirinioetako laku eder baten ateratako argazkia. Mendien erdian, irlatxo bat aurkitu genuen. /Argazkia: Roberto Izagirre/Bergara



ALPEETAN. Argazki hau Alpeetan atera da aurten udan. Turreko Glaziarraren azpitik aterata dago eta atzean Aiguille Verte ikus daiteke. /Argazkia: Oihana Aizpurua/taldekoizteko/Retxabaleta



MEREZITAKO ATSEDENA. Astuariseko gailurrauk biziakletan menderatzen. Esfortzuaren ostean merezitako atsedena eta poztasuna. Abuztuan ibili ginuen han. /Argazkia: Igor Ansoategi



CAPADOCIAKO PAISIAIA. Uztailean Capadociako paisaia ikusteko egiten diren hegalditxo zoragarriak. /Argazkia: Mari Tere Agirre /Arrasate




UREDERRA. Nafarroako Urederra ibaiaren ateratako argazkia, aurtxo abuztuan. /Argazkia: Ortiz San Andres



ARDOA ETA GAZTA. Lisboako kaleetan, ardo-tegi kurioso batean aterta nuen; mahai moduan kupela txiki bat erabiltzen zuten, eta bertako ardoak eta gazta dastatzeko aukera izan genuen. /Argazkia: Irantzu Lete



GONDOLAK. Veneziako gondola famatuak dira mundu zabalean. Bidaia bat egin genuen gondoletan eta ikustekoa da nolako trebeherria. Dena uretatik eramazia daukaten horrelako *txalupak* gidatzen. Dena jendea, bisitariak euren kantuekin *bustitzen* dituzte. /Argazkia: Sergio Gomez / Oñati



ANDALE! Acapulcoko badian, txoriak bailiran, musikarieiek kontrabaxua, soinu eta gitarra altzoan hartu eta jendea, bisitariak euren kantuekin *bustitzen* dituzte. /Argazkia: Maite Telleria/Antzuola

NEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



GAZTELUTIK. Argazkian emaztea eta seme-alabak, Frias herriko gazteluan, Burgosen. Irudi bitxia iruditu zitzaidan. /Argazkia: Luis M. Dacosta /Oñati



GORA SAN FERMIN! San Ferminera gatoz ongi pasatzen... Goienkaria eskuan. /Argazkia: Pilar Guridi /Oñati



VENEZUELA. Venezuelan, Salto del Angel-etik gertu. Naturaren indarra. /Argazkia: Roberto Unanue/Aretxabaleta



ALHAMBRA. Bere magalean dagoen Granadako zaindari bailitzan, gazte eta sasoiko dirau Alhambrak bere dorre eta jauregiekin. Orduak pasa nituen bere lortegi koloretsu eta horma gorrien artean, arkitektura musulmanaz gozatzen. /Argazkia: Unai Zabarte/Bergara



DUNAN. Udan Landetan lagunekin izan naiz, eta surf egiteaz gain, inguruak ezagutzen ere ibili gara. Arachon inguruan izugarrizko duna bat zegoen. /Argazkia: Olatz Gerrikagotia



HARRIZKO MONASTEGIA. Harrizko monasterioa joan ginenetik urtebete pasa. Monasterio ondoko lakua oso ederra da, ikusgarria benetan. Zuhaitza erortzeko zorian zegoela zirudien. /Argazkia: Josu Zubia



UR JOLASAK. Uda hasieran ateratako argazkia da; bi txiki hauek oporrak hartu berri baserrian urarekin jolasten ari dira, gustora asko! /Argazkia: Mirari Malbadi Guridi/Oñati



LEHIOTIK. Isiltasuna. /Argazkia: Urri Urizar/Eskoriatza



JOLASEAN. Tenerifeko hondartzetan egiten den goi-mailako kirolaren adibidea. Uztaldeko irudia. /Argazkia: Peio Altube/Arrasate



UDAKO ARGAZKien ASTELEHE


Argazki guztiak fotoblog honetan:




INDIA. Indiako iparraldean, 4.500 metrotara ateratako argazkia, bertako hirietako zoramenetik urrun, pakean, isiltasunean. /Argazkia: Ibai Madariaga



ILLOBA. Nire iloba gazteenari, Sarari, atera zioten argazki hau gurasoek, Hossegor-eko hondartzan. Bere *tronotxoa* egiten zuen itsas bazterrean, eta olatu bat zetonren bakoitzean, apurtu egiten zen Sararen eserlekua. Eskerrak gurasoak adi zeudela olatu handiak etortzen ziren bakoitzean... /Argazkia: Maximo Iñurrategi/Eskoriatza



AFRIKA. Masai Marako Parke Naturalean ateratako argazkia, iazko udan. Bertan turista batzuk ikus genezake furgoneta batetik argazkiak ateratzen elefante familia bat. Ikusgarria tokia. /Argazkia: Iker Badiola



MUTRIKU. Itsasontzien lotura, txalupak eta atzean Mutriku. Toki ederrak ditugu gertuan. /Argazkia: Luis Fernandez/Bergara



MAROKO. Bi lagun desertuan, berebereek izango bagina. Paisaia, zoragarria. /Argazkia: Itziar Lete



NIKARAGUAN. Aurtengo udan Nikaraguan ateratako argazkia. Bertako jendeak primeran hartu gintuen. /Argazkia: Garazi Olabarria/Bergara



HEGOAFRIKA. Ilunabarra ala egunsentia? /Argazkia: Xabier Etxenagusia/Eskoriatza



OLATUAK. Itsasoak bare Zumaiako hondartzan. San Telmotik abuztuko goiz eder batean ateratako irudia. /Argazkia: Jose Ramon Txintxurreta/Oñati

NEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA

www.goiena.net/blogak/argazkiak



ARROZA. Dongky herrian, arroza sikitzena unean, gogor lanean. /Argazkia: Oihana Garcia/Arrasate



PRAGA. Zaldiek gidatutako gurdian Praga dotorea bisitatzeko aukera dago. Atzean Tyn eliza ikus daiteke. Bere bi dorreak berdinak direla ematen du, baina desberdinak dira. Polita izan zen bien arteko desberdintasunak aurkitzea. /Argazkia: Joseba Gonzalez de Martin/Aretxabaleta



TOURRA. Garmendia-Odriozola eta Irizar peñakoak, txirrindularien zain, giroa berozten. Mailot horia zaleek merezi dute askotan. /Argazkia: Joxean Unzurrunzaga/Oñati



BEHATEGIA. Seattle-eko Space Needle behategitik bista ikusgarria dago. Hiri osoa ikus daiteke handik. /Argazkia: Itziar Perez/Antzuola




TESSEGNANE. Tessegnanen, Marokon ateratako irudia, Sahara usaintzen. /Arg.: Eneko Juaristi/Bergara




TAILANDIA. Pileh Bay da argazkiko paisaia ikaragarria. Itsaso Indikoan kokatzen da horma bertikalek mugatutako ur gardenezko badia. /Argazkia: Oier Garro



UDA BEROAREN ITZALA. Portugaleko hondartzan, ilunabarrean, bi itzal luze. Amodio sutsu baten adierazpena izango ote? /Argazkia: Iñigo Urrutia/Eskozieta



KUKAINA. Ondarroan. /Argazkia: Itziar Gardoki/Arrasate



ALEMANIA. Argazkia abuztuan Alemania hegoaldean hartutakoa da, Berchesgaden parke naturalean koka-tua dagoen Obersee lakuaren; arratsaldeko azken orduetan ispi lu bat dirudi... /Argazkia: Iker Herran

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Salzoko presarekin. 659 64 67 38.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. Bi logela eta gantxarria. Berriuta. Jantzia. 180.000 euro. 605 73 37 39.

Luz Saint-Sauveurren etxebizitza salgai (Frantziako Pirinioak). 670 49 84 28 edo 649 03 52 95.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolu auzoan. 130 metro koadro. Hiru logela. Eguzkitsu. 661 10 29 66 edo 628 07 53 99.

Ofici. Kurtzebide kalean estreinatu gabeko etxebizitza ematen da errentan. 943 78 30 56.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Bikote arduratsuena. 615 73 79 11.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan Zigarroa auzoan edo inguruan. Bi edo hiru logelakoa. 676 88 30 56.

Arrasate. Emakumea etxean errentan hartzeko prest. 659 35 09 30.

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 650 90 98 99.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. 699 66 33 63 edo 689 20 13.

Bergara. Etxebizitza errentan hartzeko nuke. Bikiteta bat gara. 688 68 77 80.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 608 57 37 68.

Eskoriatza. Etxebizitza hartuko nuke errentan azarotik aurrera. 610 89 76 64 edo 665 30 70 94.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Bi logela errentan erdigunean. 680 30 24 64.

Arrasate. Logela ematen da errentan Ferrerias kalean. 666 75 73 21.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitate-

tik 5 minutura. Sukaldea guztiz horrituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela, pisu eguzkitza, wi-fi-a… Eguzkitsu. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

Arrasate. Mutil batek logela hartuko luke errentan. 645 72 25 24.

Bergara. Gela bat ematen da errentan Bolun, sukaldea erabilizko eskubidearekin. 670 85 86 68.

Bergara. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 14:00ak eta 18:00ak bitartean. 670 40 73 53 edo 696 02 68 30.

Bineska ikasle behar dira etxean osatzeko Aretxabaletan. Hiru logela, sukaldea, despentsa, egongela, bi komun eta terraza. Autobus geltokiak gertu. Garazi. 618 92 40 68 edo 646 94 19 81.

2/ GARAJEAK**201. SALDU**

Bergara. Garaje itxia salgai Ibarra kalean. 605 77 57 33.

202. EROSI

Eskoriatza. Garaje itxia erosio nuke, ahal izanez gero erdigunean. 690 04 40 53.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garajea ematen da errentan Kurtzebide kalean. 665 72 62 83.

204. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garajea errentan hartu edo erosio genuke Aretxabaletako Belorrieta San Miguel inguruan. 656 72 38 41.

Aretxabaleta. Garajea hartu nuke errentan Aretxabaletako erdigunean. 662 16 22 22.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Bi logela errentan erdigunean. 680 30 24 64.

Arrasate. Logela ematen da errentan Ferrerias kalean. 666 75 73 21.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitate-

3/ LOKALAK**301. SALDU**

Ofici. 48 metro koadroko etxabekomertziala ematen da errentan, erosteko aukerarekin. Guztiz eraberriuta. Negoziorko egokia. 608 96 92 75.

ETXE AGENTZIAK**IRAGARKI SAILKATUAK****1. ETXEBIZITZAK**

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. ETXEAK OSATU

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. KONPONDUA
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketari eta ezta iragarkia bertan behera utziker ere.

943 25 05 05
sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

4/ LANA**401. ESKAINTZAK**

Aramaioko lagun talde batetik aerobik irakaslea behar du. Deitu telefono honetara: 665 72 62 83.

403. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garajea ematen da errentan Kurtzebide kalean. 665 72 62 83.

404. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Garajea errentan hartu edo erosio genuke Aretxabaletako Belorrieta San Miguel inguruan. 656 72 38 41.

405. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Garajea hartu nuke errentan Aretxabaletako erdigunean. 662 16 22 22.

5/ LOKALAK**301. SALDU**

Ofici. 48 metro koadroko etxabekomertziala ematen da errentan, erosteko aukerarekin. Guztiz eraberriuta. Negoziorko egokia. 608 96 92 75.

6/ MOTORRA**601. SALDU**

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

8/ DENETARIK

801. SALDU

9/ HARREMANAK

901. SALDU

10/ RELAX

100. SALDU

11/ ETXEBIZITZAK

12/ GARAJEAK

13/ LOKALAK

14/ MOTORRA

15/ ANIMALIAK

16/ DENETARIK

17/ HARREMANAK

18/ RELAX

19/ ETXEBIZITZAK

20/ GARAJEAK

21/ LOKALAK

22/ MOTORRA

23/ ANIMALIAK

24/ DENETARIK

25/ HARREMANAK

26/ RELAX

27/ ETXEBIZITZAK

28/ GARAJEAK

29/ LOKALAK

30/ MOTORRA

31/ ANIMALIAK

32/ DENETARIK

33/ HARREMANAK

34/ RELAX

35/ ETXEBIZITZAK

36/ GARAJEAK

37/ LOKALAK

38/ MOTORRA

39/ ANIMALIAK

40/ DENETARIK

41/ HARREMANAK

42/ RELAX

43/ ETXEBIZITZAK

44/ GARAJEAK

45/ LOKALAK

46/ MOTORRA

47/ ANIMALIAK

48/ DENETARIK

49/ HARREMANAK

50/ RELAX

51/ ETXEBIZITZAK

52/ GARAJEAK

53/ LOKALAK

54/ MOTORRA

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Enpresak.** SEPI Fundazioarekin lan egiten duten zentro edo egoitzetan prestakuntzako praktikaldia egi-teko bekak.

LURRALDEBUS

> **Gazte txartela.** 10 eta 24 urte arteko gazteentzat %20eko bonifikazioak. Tramitazioa ohiko lekuetan: 4 euro, argazkia, enpadronamendu agiria eta NAN kopia.

IKASTROAK

> **Gaur egungo dantzak nerabeentzat.** Arrasateko Gazteria Saila. Urriaren 13tik abenduaren 15era arte. Astelehenetan, 18:00etatik 20:00ak arte.

> **Software librea euskaraz.** Arrasateko Gazteria Saila. Urriaren 16tik abenduaren 4ra arte. Eguznetan, 18:00etatik 20:00ak arte.

LEHIAKETAK

> **Film laburrak.** Bergarako Film Laburren III. Lehiaketa. Debagoienean bizi direnentzat, gaia eta generoa libreak. Epea: azaroaren 3an.

> **Musika.** XII. Nazioarteko Donostia Hiria lehiaketa pianojole gazteentzat (8-23 urte arteko gazteak). Epea: urtarrilaren 9an.

LANA

> **Administraria,** 2 administrari laguntzaile, delineantea, euskaltegi-ko irakaslea, hodi-iturgina, Kultur Ateko laguntzailea, 2 kultur ekintzako laguntzaile. Arrasateko Udalaren eskaientza publikoa. Epea: urriaren 20.

> **20 administrari** orokorreko teknikari, 35 zerbitzuetako langile, 96 administrari, 8 behargin, 2 herri-lanen ingenieri, arkitektu teknikoa. Bizkaiko Foru Aldundia. Epea: urriaren 10.

> **Heziketa laguntzarako** espezialista. Orioko herri Ikastolan. 15 orduko lana. Interesdunak Ikastolako idazkaritzatik pasa daitezela irailaren 29tik urriaren 6ra.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbeidea 3 • 943 77 00 65
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitza@euskalnet.net
ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazio@oinati.net

astea GOITBn

Astelehena, 6



'Goiena Magazinea' hasten da gaur, Goiena Telebistan

19:45

Larraitz Zeberriok aurkeztuta, *Magazinea* hasiko da gaur Goiena Telebistan. Egune-ro eskainiko da saioa, 19:45ean, zuzenean.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Muka muka.

13:45 Itsasoari begira.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Mugaz kanpo.

15:45 Ttipi ttapako errepore-tajeak.

16:15 28 Klip.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizi-dunak.

18:15 Eltze beroa.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazki bizi-dunak.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Blogtb.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Harmailatik.

22:15 Erreportajea.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Martitzena, 7



'Berriak' saioa egunero eskainiko dute telebistan

14:45

Oñatiko jaiak, saio berezian ikusgai 22:30

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Futbola

13:45 Ikusten.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Harmailatik.

15:45 Solaskide.

16:15 Itsasora begira.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazkiak: Futbola.

17:45 Ttipi ttapako errepore-tajea.

18:15 Eltze beroa.

18:45 Harmailatik.

19:15 Marrazkiak: Muka.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Zaharrak berri.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Erreportajea.

22:15 28 Klip.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Eguaztena, 8



Oñatiko jaiak, saio berezian ikusgai 22:30

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Muka muka.

13:45 IkuSmira.

14:15 Gure saltas.

14:45 Berriak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Blogtb.

16:15 28 Klip.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizi-dunak.

17:45 Solaskide.

18:15 Ur eta lur.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazkiak: Muka.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Zaharrak berri.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Erreportajea.

22:15 28 Klip.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Eguena, 9



Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan 22:15

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Migaletak.

13:45 IkuSmira.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Blogtb.

16:15 28 Klip.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizi-dunak.

17:45 Solaskide.

18:15 Ur eta lur.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazkiak: Muka.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Zaharrak berri.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Erreportajea.

22:15 28 Klip.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 10



'Marrazki Bizidunak' umeen gozagarri 14:45

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Migaletak.

13:45 IkuSmira.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Blogtb.

16:15 28 Klip.

16:45 Berriak.

17:15 Marrazki bizi-dunak.

17:45 Solaskide.

18:15 Ur eta lur.

18:45 Berriak.

19:15 Marrazkiak: Muka.

19:45 Goiena Magazinea.

20:30 Zaharrak berri.

21:00 Goiena Magazinea.

21:45 Erreportajea.

22:15 28 Klip.

23:00 Goiena Magazinea.

23:45 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> **Masajeak opari, irratiko entzuleendako 10:30**

Jose Luis Abuin masajistak profesiona-laren eskuak, kiromasajea, akupuntura, konsulta naturista, ekialdeko masajeak eta beste eskuak, aukera eskainiko du asteon Arrasate Irratia entzuleen artean.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuak; hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berria, eta sexologia kontuak, bestek arte.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitza
10:00-12:00 Igo Autobusera
Albisteak
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorionagurak (parte hartzeko): 943 25 05 05 (irratia@goienea.com)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 I

kuxkuxeroa



Arritxu Barruso

Dotore-dotore jantzi eta guztiak kalera

Kalera irteteko asteburua izan da pasa dena. Geuriere, tamalez ez festarako, baina kalera irtetea tokatu zai-gu. Gero, kaleetan ikusitak *txutxu-mutxuak* zeuoi kontatzeko.

Urtean behin edo birratan janzten diren arropak armairutik ateratzeko asteburua ere izan da. Arrasatearrak dotore-dotore jantzita ibili ziren egubakoitzean. **Maritxu Kajoik** ez du gutxiago merezi-eta. Ezin esan inbidiarik pasatu ez nuenik, baina, tirante hutseko soinekoak zeramatzen neskek, ordea, inbidia gutxi. Nire bero-

Maritxu Kajoik oñatiarrei egin zien miraria: zerua garbitu eta temperaturak igo

kiarekin epeletan ikusi nuen eta aurtengo miraria; San Ferminak Arrasaten zu!

Dena dela, Maritxu Kajoik oñatiarrei egin zien miraria: zerua garbitu eta temperatura igo. Oñatin ere dotore-dotore ibili ziren zapatuan **Herri Eguanean**. Baserritar jantziak armairutik atera eta kalera irten ziren horiek ere. Ez nuen herri eguna ezagutzen, baina, aitortu behar dut azokaren bat aukeratu beharra izanez gero berori aukeratuko nukeela. Denetarik ikusi nuen eta giro polita. Hurrengo eguneko goizaldera arte bat baino gehiago dotore asko ibili zela ere jakin dugu.

Bergaran, berriz, dotore jardun zutenak txotxongiloak izan ziren. Helduendako **Txo-txongilo Mostrak** giro bikaina sortu zuen.

**((112))
SOS DEIAK**

ARRASATE > MARITXU KAOI

Iruñatik Arrasatera San Ferminak heldu ziren Maritxutara

Txupinazo eta guzti Maritxu Kajoik Iruñako jai nagusia ekarri zuen gurera

NEREA MENOR > ARRASATE
Euriak ez zituen arrasatearrak kikildu eta herriko kaleak soineko luzez eta esmokinez bete ziren egubakoitzean. Lore eskaintzaren ostean eta *Maritxu nora zoaz* abestu ondoren, herriko zaindariaren miraria



Eskapularioa, beharrezkoa.

ikusi ahal izan zuten bertara hurbildu zirenak.

MARITXUREN MIRARIA

Atzoko ezustea San Ferminetako *peña* batek eman zuen. Udalatxeko balkoitik txupinazoa bota eta Herriko Plazan zehar txuri eta gorri jantxitako dozena bat gaztek itxurazko entzierroa egin zuten. Udalatxean jai herrikoi aldeko bi pankarta handi zintzilikatu zituzten, eta aterka eskuan zutela jaiarekin jarraitu zuten arrasatearrek, goizaldera arte.



Traje dotoreak kalean. J.A.RANTZABAL



Plaza jendez gainezka Maritxuren miraria ikusteko.

JOSETXO ARANTZABAL



Gaztetxoenek ere hartu zuten parte jai egunean.

J.A.



Guztiak alai jaietan. J.A.



Herriko neskatala koadrila bat. J.A.



Musika ezin falta kaleko giroa alaitzeko. J.A.



Maritxu zaindariaren jarraitzaileak. J.A.



Festaz gozatu zuten guztiekin. J.A.



Urtero legez, loreak eskaini zizkioten Maritxuri. J.A.




Parranda giroa nagusitu zen Arrasaten. J.A.

zorion agurrak



OÑATI
Bittor Perosterena
8 urte beteten
ditu. Zorionak etxe-
ko gizontxuari.
Patxo handi bat
amama Maribi,
Aitor, Unai eta
danon partez.



ARETXABAleta
Eider Otxoa
Irailaren 30ean.
Zorionak eta patxo
handi bat lagunen
partez!



ANTZUOLA
Mikel eta Josune Larrañaga Kortabarria
Irailak 27 Iosunek 5 urte eta urriak 1 ean
Mikelek 37 urte. Zorionak eta patxo handi
bana etxeko partetik



OÑATI
Gotzon Osinaga
62 urte beteten
ditu. Zorionak aito-
na! Etxeko danon
partez eta patxo
handi-handi bat
Eneritz, Malen eta
Auritzen partez.




ARETXABAleta
Iker Urtaza Urzelai
Urriaren 2an urte-
betetzea. Zorionak
etxeko eta bere-
ziki Naroan partez.



ARRASATE
**Unax Iñarra
Mendizabal**
Urriaren 3an, 5
urte. Zorionak txiki
familia guztien eta
bereziki Gorka eta
Arantzen partez.



ARRASATE
Maite Barandiaran
Urriaren 3an urte-
betetzea. Zorionak
amama, familia eta
batez ere, zure
iloba Unax eta Jon-
en partetik. Muxu
pila bat zuretzat.



ARRASATE
Unai Laskurain
Urriaren 4an urte-
betetzea. Zorionak
amama, Edurneran
eta etxeko partetik
eta ondo pasau
zure urtebetetze
eguna, demonixo!



ARRASATE
**Lide Zubia eta Ibai
Uribarren**
Urriaren 5ean eta
8an. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunen par-
tetik.



ARRASATE
Julian Zubizarreta
Urriaren 7an.
Zorionak etxeko
partetik eta ondo
pasau zure eguna!




ARRASATE
**Ibai R. de Austri eta
Imanol Juaristi**
Urriaren 7an eta 10ean.
Zorionak! Arizmendi;
Sanvi Txikiko lagunen
partetik.



ARETXABAleta
Igor Altuna
Urriaren 11n.
Zorionak kanpeon!
Familia guztien
partez!



ARRASATE
Fermín Kortabarria
Urriaren 12an.
Zorionak eta urte
askotarako aitaia!
Etxeko partez,
ondo pasau egune!



BERGARA
Jon Larrañaga
Urriaren 6an, 5
urte. Zorionak etxe-
ko partetik.



BERGARA
**Ainhoa Ugarte
Gabilondo**
Urriaren 1ean.
Zorionak etxeko
partetik!



ARRASATE
Aritz Tornay Belategi
Urriaren 2an urte-
betetzea. Patxo
handi bat eta zorio-
nak txapeldun!



BERGARA
Maren Arevalillo
Urriaren 2an, 6
urte. Zorionak eta
patxo handi bat
etxeko partetik.



BERGARA
Ainhoa Pardina
Urriaren 2an, 11
urte. Zorionak etxe-
ko guztien partez.
patxo handi bat.



BERGARA
Ibon
Muniategiandikoetxea
Urriaren 6an.
Zorionak eta patxo
handi asko!



BERGARA
**Joseba Elorza
Garitano**
Urriaren 6an.
Zorionak eta patxo
handi bat etxeko
guztien partetik.



ARRASATE
Jone Zubizarreta
Urriaren 6an 8
urte. Zorionak eta
patxo handi-handi
bat etxeko partetik.



ESKORIATZA
Oihana eta Haizea Arana
Urriaren 12an, 12 urte
beteten dituzte.
Zorionak aitatxo eta
amatxoren partetik!!



BERGARA
Jennifer Caballero
Urriaren 4an, 7
urte. Zorionak
neska handil Zure
senide guztion par-
tetik, eta bereziki
zure aitonan Miguel.

jaiotakoak



Unax Sologaistoa Zubia
Oñati > 3,500 kilo. Irailaren 27an.
Gurasoak: Itziar (Oñati) eta Mikel
(Oñati). Argazkian, Unax jaioberria
sehaskan.



Olaia Gozalez Obeso
Oñati > 3,600 kilo. Irailaren 26an.
Gurasoak: Maria Lourdes (Oñati) eta
Juan Carlos (Oñati). Argazkian,
umea sehaskan lo.



Ekaín Sanchez Molinero
Bergara > 2,900 kilo. Irailaren 28an.
Gurasoak: María (Bergara) eta Jon
(Bergara). Argazkian, Ekaín jaiobe-
ria gurasoekin.



Naroa Larrea Zubia
Oñati > 2,790 kilo. Irailaren 28an.
Gurasoak: Ainara (Oñati) eta Iñaki
(Antzuola). Argazkian, umea amo-
narekin.



Lucía Ignacio Herruzo
Eskoriatza > 3,500 kilo. Irailaren
28an. Gurasoak: Beatriz (Eskoria-
tza) eta Julio (Eskoriatza). Argaz-
kian, umea gurasoekin.



Saioa Olea Orgaz
Arrasate > 2,990 kilo. Irailaren
27an. Gurasoak: Pepi (Arrasate)
eta Aitor (Arrasate). Argazkian,
Naiararekin eta Giganerekin.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ESKER ONA

Justa Artolazabal Txintxurreta

Bergaran hil zen 2008ko irailaren 27an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urriaren 6an.

OROIGARRIA

Justa Artolazabal Txintxurreta

Bergaran hil zen 2008ko irailaren 27an, 95 urte zituela.

Zurekin igarotako uneak
Egin dittugu gure babes
Inoiz ahaztuko ez zaitugula
Guztiz ziur egon zaitez
Gero arte amona, agurrik ez!

Etxekoak.
Bergaran, 2008ko urriaren 6an.

ESKER ONA

Maria Villar Igartua

Pedro Arriola Arabalazaren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko irailaren 24an, 89 urte zituela

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta
samin-agurrak bidali zenikigutuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko urriaren 6an.

Jesus Etxeberria > Antzuolako aguazila

"Gauzak asmatzen gustura ibiltzen naiz"

IKER BARANDIARAN > ANTZUOLA
Aguazilak ez dira udaltzainak; bestelako lanak egiten dituzte. Jesus Etxeberria Antzuolako aguazila da 1979tik, eta gustura dabil bere lanean. Horrez gain, baina, aisia dienboran asmatzailea ere bada, esku ona dauka Etxeberriak.

Aguazil izango ez bazina, zer izango zinatene?

Ez dakit. Nahiko esku ona daukat elektrizitate, makinaria eta mekanikako trasteekin ibiltzeko. Gauzak asmatzen gustura ibiliko nintzateke.

Noiz hasi zinen aguazil lanean? Eta zer lan zeneukan aurrelik?

1979ko irailean hasi nintzen aguazil. Aurretik Goizper enpresan lanean egon nintzen, eta gerora osabarekin Gasteizen zeukan tailer baten zazpi urte egin nituen. Gasteizen giltzak eta erreboinatu bereziak egiten genituen.

Kilometro asko egiten dituzu oinez egunero? Udalerrri osotik zehar ibiltzen zara...

Lehen bai, udalerri osotik zehar bueltaka ibiltzen nintzen. Gerora, baina, hankatik ebakuntza egin zidaten eta orain autoan ibiltzen naiz. Udaleko sail guztindako lan egiten dut: Kultura rako, brigadarendako...

Zer da zure lanak daukan gauza txarrena?

Ni oso gustura nago, esker oneko hitzak ditut. Txarrena da noizbehinka jendeari dirua ordaindu behar duenaren notifikazioak eramatea eta norbaiti errieta egin beharra.

TEST-A

Herria: Antzuola. **Adina:** 57 urte.

Ikasketak: Ofizialtzaren hirugaren maila egin nuen eta Maisutza hasi nuen. **Zaletasunak:** Lehen parrandak egiten genituen, baina honezkero formaldua gauza. Pilotatik ikusteak asko gustatzen zait.

Zer amets daukazu betetzeko? Euskal Herrian behingoz ondo konpontzea eta herri moduan funtzionatzea. **Nora egindo zenuke bidaia bat?** Urrun ez. Euskal Herrian leku zoragarriak daude.

Inoiz Antzuola Telebista egi-ten badute, aurrelik zurekin berba egin beharko dute, ezta?


(Barre) Tira, nik zaletasun handia daukat bideoarekin grati-batu eta gero montajeak egiteko. Orain dela 20 bat urte hasi nintzen jaiak, herriko lanak eta beste bideoan jasotzen. Niretzat gordetzen ditut, baina hor gelditzan den zerbait da, eta nire ustez hori jasotzea garrantzitsua da.

Dagoeneko Olalde elkarteko ohorezko bazkide izendatu zai-tutze?

(Barre) Ez, oraindik ez ditut 60 urte bete eta ez naute izenda-tu. Egia esanda, lehen askotan joaten ginien afaltzera, kantuan egi-tera, baina aspaldian formaldu-ta gauza.

Bestalde, asmatzaile ere bazai-tugu, ezta?

Tira, asmakizun batzuk egin izan ditut, gustuko dut saltsa hori. Azkena enborrak mozteko sistema izan zen. Azokatan saltzen ibiltzeko ez naiz ona, baina dagoeneko hainbat eskaera izan ditut.



BASERRIAN Jesus Etxeberria Bizkalatza baserrian.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ai, ene!



Pantera-motorra

400.000 euroko pantera hau, Lee J Rowland-ek diseinatutako motorra da. 1.200 cc ditu eta argia begietan izanez gero, ikustekoa izango zen iluntasunean errepidean zehar. Egun-doko sustoa hartuko zuen batek baino gehiagok!

<http://www.nopuedocrear.com>

biharamuna

Oier Bolibar

Ninja krisia

Jadanik galdu dut kontua, ez dakit zenbat aldiz entzun dudan krisi hitza azkenaldian. Krisia, eboluzioari loturiko errealitate antolatu baina ezezonkor baten baitan ematen diren egoera aldarcorri deitzen omen zaio, baina definizio horrekin ez dugu nahikoa inguratzen gaituena ulerkor egiteko.

Ezaguna ere egin da krisiaren ondorioz **Leopoldo Abadia** 75 urteko ingenia-ri erre-tiratua. Krisiaren jatorri eta gorabeherak bere buruarentzat ulerkor egiteko txosten bat idatzi zuen, hau era berean bere ezagun batzueri emailez helaraziz, eta domino efektuaren eraginez, egun gutxitan, interneten




krisia azaltzen duen artikulurik ezagun eta baloratuena bihurtu da, Ninja krisia.

Bertan, detaile osoz azaltzen digu nola AEBetan jatorria duen zerbait, gaur egungo muga eta kontrol urrien ondorioz, mundu osora hedatu, eta gutxien espero zuenari, hau da,

bere herriko aurrezki kutxa bakarrenean ezkur apurrak zituenari ere eragin dion.

Muga non duen ez dakigun egoera aldakor baten murgildurik gaudela badakigu, baina beti dute errealitate ezezonkor hauek orekarrantz joateko, oreka bila-tzeko joera. Non gauden jakin behar.

eguraldia



MAXIMOA

+21

MINIMOA

+09

Udazkeneko giroarekin hasiko dugu astea. Haize bizia, eta zeruan hodeiak eta ostarteak. Noizbehinka euri arina egingo du.

www.euskalmet.net

www.japancar.toyota.es

TOYOTA BAT IZATEKO AUKERA EZIN HOBEA

TOYOTAREN ➔
HOBETO BIZI PLANA

Toyota Avensis, Auris edo Corolla Verso bat prezio ezin hobean lortzeko aukera. Toyota markaren garantia eta kalitatea zure eskura. Hobeto Bizi planak ematen dizkizun abantailak aprobetxatu. Zatoz zure Toyota kontsepcionarioa.

TOYOTAREN ➔
HOBETO BIZI PLANA

17.600 €* 4 AUTO BILTEGAN	BIZONA AIRE-GIROGAILU AUTOMATIKOA 9 AIRE-POLSTA VSC + TRC (TRAKZIO ETA EGONKORTASUN KONTROLA) PINTURA METALIZATUA	14.350 €** 3 AUTO BILTEGAN	AIRE GIROTA 9 AIRE-POLSTA VSC + TRC (TRAKZIO ETA EGONKORTASUN KONTROLA) IRRATIA CD/MP3/WMA	20.800 €*** 2 AUTO BILTEGAN	BIZONA AIRE-GIROGAILU AUTOMATIKOA EASYFLAT 7 ALURIEN TOLESTAKETA SISTEMA EGONKORTASUN KONTROLA + 9 AIRE-POLSTA PINTURA METALIZATUA
TOYOTA AVENSIS SEDAN 1.8 129 ZP SOL ZP	TOYOTA AURIS 1.4 97 ZP 3ate.	TOYOTA COROLLA VERSO DIESEL 136 ZP LUNA			

www.japancar.toyota.es

*Toyota Avensis; Bez-a, garraioa eta matrikulazio zerga barne. Eskaintza balioigarria Penintsula eta Balear uharteetan hil bukaera arte biltegian dauden autoentzat. Iragarkiko modeloia Toyota Avensis Wagon ZP. CO2 emisioa (g/km): 146tik 193ra. Kontsumo kombinatua (l/km): 5,5etik 9,2ra.
**Toyota Auris; Bez-a, garraioa eta matrikulazio zerga barne. Eskaintza balioigarria Penintsula eta Balear uharteetan hil bukaera arte biltegian dauden autoentzat. Iragarkiko modeloia Toyota Auris 1.4 97 ZP. CO2 emisioa (g/km): 131tik 166ra. Kontsumo kombinatua (l/km): 5,0etik 7,1era.
***Toyota Corolla Verso; Bez-a, garraioa eta matrikulazio zerga barne. Eskaintza balioigarria Penintsula eta Balear uharteetan hil bukaera arte biltegian dauden autoentzat. Iragarkiko modeloia Toyota Corolla Verso 1.3 120 ZP. CO2 emisioa (g/km): 164tik 184ra. Kontsumo kombinatua (l/km): 5,2tik 7,1era.

EURO NCAP
ADULT OCCUPANT
5 ★★★★

GARANTIA 3 AÑOS
0 a 100.000 Km

FINANCIAL SERVICES

TOYOTA

Informazioa eta proba:
902 342 902

EuskoAuto

Bergara
Olabarrena Auzoa, z/g
Tel.: 943 762 385

TODAY TOMORROW TOYOTA

